ITURRIA ITXI, GAZA ITO: Bi milioi palestinar egarriz bizi dira Tel Avivek diseinatutako eskasian > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Yoko Ono

LUR ALBIZU ETXETXIPIA > 11

GAUR8

2026ko maiatzaren 30a | XX. urtea • 980. zenbakia
0,75 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

«TURISMOA BETI ONA DA» DIOEN DOGMA APURTZEKO SASOIA

«Turismoa. desazkundera bidaia» liburua idatzi du Asier Basurtok. Turistifikazioa eta ereduak eztabaidagai diren sasoian, «turismoa gobernatzen eredu» izan behar genukeela uste du. Horixe erronka. > 26 Jon URBE | FOKU

GAUR8
mila leiho zabalik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.
Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxa: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.

Israelek ura ere zigor-arma moduan darabil Gazan 04

Ikusmira: Kolonbiaren norabide politikoa jokoan 07

Saharatik barrena (III): Dakhla, giza eskubideen zulo iluna 08

Erreparazio komunitarioa, Orioko lanketatik ikasten 12

EH Digitala: Nola aurre egin teknofaxismoari 18

Adimen artifiziala eta gizatasuna (III): Ziborgak lurraren biziraupenerako! 22

Asier Basurto: «Turismoa ongi kudeatzea litzateke lorpena, ez turista asko etortzea» 26

Juantxo Egañaren behatxulotik 31

SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** Sionistak prentsari zaunka
10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Itxaropena
11 **Lur Albizu Etxetxipia:** Yoko Ono
16 **Amaia Ballesteros**
17 **Maider Iantzi Goienetxe:** Itzultzeaz
17 **Xabier Mikel Errekondo:** Nik han egon behar dut
20 **Luixa Reizabal Arruabarrena:** Hezkuntza eraldatu, jendartea eraldatzeko
21 **Mijo Lizarzaburu:** Etorkizunaren monopolioa
30 **Maite Oronoz:** Osasunaren determinatzaile sozialek gure osasuna baldintzatzen dute

{ datorrena } **Iñaki SOTO**

Sionistak prentsari zaunka

Duela gutxi, erakunde sionistek deituta, Manhattaneko "The New York Times" egunkariaren egoitzaren aurrean 200 pertsona inguru bildu ziren Nicholas Kristof kazetariak idatzitako iritzi zutabe baten argitalpena salatzeko. Bi Pulitzer sariren irabazlea den Kristofen zutabearen izenburua "The Silence That Meets The Rape of Palestinians" zen (Isiltasuna palestinarren bortxaketaren aurrean).

Hamalau pertsonaren lekukotzak bildu zituen Kristofek, baita NBEren eta Israelgo giza eskubideen aldeko erakundeen txostenak ere. Xehetasunez azaltzen ditu Israelgo militarren eta zaindarien eskutik atxilotze-zentroetan dauden preso palestinarrek jasandako abusu sistematikoen, torturen eta sexu-indarkeriaren akusazio larriak. Lekukotzarik gordinen eta hunkigarrienen artean, sexu-abusuak egiteko trebatutako txakurren erabilerari buruzko kontakizunak daude. Egitate horrek bereziki asaldatu ditu sionistak.

Horren harira, Benjamin Netanyahuk Estatu juduari "The New York Times" egunkariaren aurkako kereila jartzeko agindu zion, difamazioagatik. Egunkariko arduradunek kazetaria defendatu dute. Datu guztiak egiaztatu zituztela azaldu dute, eta Israelen mehatxua ohiko estrategia politikotzat jo dute. Horren bidez, kazetaritza independentea ahuldu eta kontakizun ofizialarekin bat ez datorren edozein informazio isilarazi nahi dute.

Sionisten "The New York Times" egunkariaren aurkako protesta ergelkeria da. Izan ere, Gazako genozidioaren eta Israelen krimenen inguruan egunkari ospetsuak izan duen ildo editoriala alderdikoia, biguna eta zorroztasun gutxikoa izan da, kasu hoberenetan; eta kolaborazionista, are eta kriminala ere izan da, txarrenetan.

"The Intercept" hedabideak egunkariaren Gazari buruzko barne-memorandum bat argitara eman zuen 2024an. Bertan, editoreek kazetariei funtsezko termino batzuen erabilera saihesteko eskatzen zieten. Palestinarren lurrak aipatzerakoan "lurralde okupatuak" esamoldea saihestea agintzen zuen. Zenbait hitzen erabilera nazioarteko auzitegien legezko testuinguruetara mugatzeko esaten zien. Ildo beretik, NBEn iritziaren aurka, "errefuxiatu-eremuak" terminoa ez erabiltzea aholkatzen zen. Salbuespenezko kasuetan izan ezik –NBEren ebazpenetan–, "Palestina" hitza erabiltzea debekatzen zen.

Urriaren 7aren ostean egindako hainbat azterketa kuantitatibok AEBko hedabide nagusiek hildakoen berri emateko orduan alderdikeriaz jokatzen zutela erakutsi zuten. Adibidez, "sarraski" bezalako hitzak askoz maizago erabiltzen ziren Israelgo biktimak aipatzeko palestinarrak aipatzeko baino. Aipamen kopuruan eta alde bakoitzari eskainitako xehetasun humanoan desoreka handia egon zen, Gazako haurren sufrikarioa neurri handi batean ikusiezina eginez. Alegia, sionistak ez daudela "The New York Times" egunkariaren tratuagatik protesta egiteko moduan. Jakina, biktimismoz ari direla esanez gero, antisemitismoa leporatuko dizute.

> Gazako genozidioa salatzeagatik BBCtik kaleratu zuten Gary Lineker parafraseatuz, Espainian «futbola hamaikak hamaikaren aurka jokatzen duten kirola da, zeinean beti Guardia Zibilak irabazten duen»

Halere, komunikabideon munduan, aldekoen erasoak eta presioak ez dira arraroak. Berriki gertatu zaio Vocentori, Florentino Perez Real Madrileko presidentearen hitzaldiaren harira. Futbol taldeari emandako tratuagatik "Abc" egunkariaren harpidetza bertan behera utziko zuela agindu zuen Perezek.

Halere, ez itxoin "Abc"-n euskal herritarren torturei buruzko iritzi artikulurik. Hain zuzen ere, Gazako genozidioa salatzeagatik BBCtik kaleratu zuten Gary Lineker parafraseatuz, Espainian «futbola hamaikak hamaikaren aurka jokatzen duten kirola da, zeinean beti Guardia Zibilak irabazten duen». •

ITURRIA ITXI, GAZA ITO

Bi milioi palestinar egarriz bizi dira Tel Avivek diseinatutako eskasian

GIZA ESKUBIDEAK / Ibai AZPARREN

Mugarik Gabeko Medikuek bi urtez bildutako datu operatibo ugari jaso ditu «Water as a Weapon» txostenean, eta ondorioztatu du Israelek ura zigor-arma kolektibo gisa erabiltzen duela Gazan. Azpiegituren %89 suntsituta daude, herritarrek lurraldearen %58 zapaltzerik ez dute eta hornidura humanitarioak blokeatuta daude.

Ali Gazako Deir al-Balah hiriko desplazatu eremu batean kanpin dendaz beteriko eremu zabal batean zegoen Mugarik Gabeko Medikuak (MSF) erakundeko kideekin topo egin zuenean. Iazko azaroa zen, eta Alik bi urte zeramatzan jada genozidio batetik bizirik atera nahian. Alik bezala, 2,1 milioi palestinarrek ia hiru urte daramatzate goizero-goizero lehen ziurtzat jotzen zuten premia bat eskuratzeko lehian. «Ura behar dugu», esan zien Alik erakundeko kideei. «Ez du zentzurik. Bizitzeko oinarrizkoena eskatzen ariko bagina bezala da», gaineratu zuen.

Israelek ura erabiltzen du zigor-arma kolektibo gisa. Hori da MSFk atera duen ondorio nagusia, Tel Avivek «Gazako ur eta saneamendu azpiegituraren ia %90 suntsitu edo kaltetu» dituela dokumentatu ondoren. « Ura gatzgabetzeko plantak, putzuak, hodiak eta estolderia sistemak suntsitu dituzte».

Datu eta ebidentzia guztiak “Water as a Weapon” txostenean jaso dituzte. 2024ko urtarriletik 2025eko abendura bitartean jasotako datu operatibo eta medikoetan oinarritzen da dokumentua, baita erakundeko langileek Gazan egindako elkarrizketetan eta euren etxeak utzi behar izan dituzten pazienteen eta desplazatuen zuzeneko testigantzetan ere.

2023ko urriaren 7an Hamasek erasoa egin eta bi egunera, Yoav Gallant Israelgo Defentsa ministroak enklabearen «erabateko setioa» iragarri zuen. «Ez da elektrizitaterik, ez janaririk, ez urik, ez erregairik egongo. Dena itxita egongo da», adierazi zuen. Egun horretan bertan, Ghassan Alian jenerala, Lurraldeetako Gobernu Jardueren Koordinazioko (COGAT) burua, hau da, palestinar lurralde okupatuak administratzen dituen Israelgo erakunde militarra, are esplizituagoa izan zen: «Giza animaliak animalia gisa tratatu behar dira. Gazan ez da ez argindarrik ez urik izango, suntsiketa besterik ez. Infernua nahi izan zenuten, izango duzue».

Organo horrek berak erantzun dio orain MSFren txostenari, eta «funtsik gabea» eta «objektiboki okerra» dela nabarmendu du. X sare sozialen egindako argitalpen batean, COGATek Israelek Gazan egunean 70.000 metro kubiko ur baino gehiago sartzeko aukera ematen duela argudiatu du.

Baina MSFren ikerketak tokian bertan jasotako bi urteko datuekin erantzuten ditu horrelako baieztapenak. Are, hiru mekanismo zehatz identifikatu ditu Israelek ura arma gisa erabiltzen duela frogatzeko: azpiegitura zibilak nahita suntsitu ditu Tel Avivek, Palestinako enklabearen barruan pertsonen eta erakunde humanitarioen sarbidea blokeatu du, eta edateko ura ekoizteko eta banatzeko beharrezko materialen hornidura-katea sistematikoki oztopatu du.

Basamortu gorria

Gazak ez du ur gez naturalik. Ez dago ez ibairik ez lakurik. Biztanleria putzuen, ura gatzgabetzeko planten eta Mekorot enpresa israeldarrak kudeatutako hiru hornidura kateen mende zegoen. Sare horri guztiari egin diote eraso. Zehazki, Gaza iparraldeko gatzgabetze planta Israelgo Armadak suntsitu zuen. Mekoroteko hiru lineak, berriz, Israelek

Goian, palestinarrak ilara egiten ura lortzeko, Gazako Rafah hirian.
Abed Rahim KHATIB | EUROPA PRESS

osotasunean kontrolatzen dituenak, behin eta berriz moztu dituzte; are, hilabeteetan zehar konpondu gabe egon dira.

Munduko Bankuak, Europar Batasunak eta Nazio Batuek egindako ebaluazio bateratu baten arabera, uraren eta saneamenduaren sektoreko aktiboen %89 suntsitu edo kaltetu ditu Israelgo Armadak. Hala,

MSFren osasun mentaleko taldeak, gazatarren artean suizidatzeko eta autolesionatzeko asmoak ere detektatu ditu uraren eta higienearen gabeziarekin lotuta

Gaza hiriko auzo oso bat putzu bakar baten mende egon da luzaroan. Ondorioz, bertako familia bakoitzak zortzi edo hamar egunean behin eta soilik ordu erdiz lortzen zuen ura

Goian, Gaza hiriko dendetako kanpamentu inprobisatuen ikuspegia. Palestinarrak, oinarrizko aterpe, elikagai eta edateko urik gabe, bizi-baldintza gogorretan bizirauteko borrokan ari dira.
Omar ASHTAWI- Ramzi ABU AMER | EUROPA PRESS

kudeaketa publikoko eta gobernuz kanpoko 196 gatzgabetze planten %60 baino gehiago hondatuta daudela adierazi du Unicefek.

Suntsipena, gainera, ez da instalazio handietara mugatzen. Lurpeko banaketa-sareek kalteak jasan dituzte, eta, ondorioz, sare horietan zehar dabilen ura galdu egiten da inorengana iritsi aurretik, edo, bestela, hausturetatik iragazten diren hondakin-urekin kutsatuta iristen da. Ur beltzak tratatzeko sistemak kolapsatu egin dira eta horiek kaleetan pilatzen eta tratatu gabe itsasoratzen dira.

Hutsune horren aurrean, Palestinako enklabeko edateko ura hornitzeko gobernuz kanpoko ekoizle handiena bihurtu da MSF. 2026ko urtarrilean 4,7 milioi litro baino gehiago ekoizten edo banatzen zituen egunero, 390.000 pertsona baino gehiagoren gutxieneko beharrak asetzeko adina. Hala ere, 2025eko maiatzetik azarora bitartean, erakundearen bost zisterna-kamioitik bat hutsik geratu zen, jendea oraindik ilaran zain zegoen bitartean.

Ura desplazamendu-palanka gisa

Israelen «ebakuazio» aginduek Gazako lurraldearen %87 hartzen dute, 2025eko uztailaren 30eko MSFren datuen arabera. 2026ko martxoan, palestinarrek Gazako lurraldearen %58 zapaldu ezinik jarraitzen zuten. Israelgo Armadak debekatutako eremu bat deklaratzen duen bakoitzean, ez du soilik biztanleria zibila kanporatzen, erakunde humanitarioak behartzen ditu beren putzuak, biltegiak eta ura edangarri bihurtzeko plantak uztera.

MSFk Rafahn pairatu zuen. 2025eko martxoan, lehen suetena amaitu ondoren, Israelek gobernazio osoa ebakuatzea agindu zuen. Erakundeak ura edangarri egiteko tamaina ertaineko lehen unitatea instalatu berri zuen bertan, egunean ia 16.000 lagunentzako edateko ura sortzeko gai zena. Ez zuen instalazioa desmuntatzeko astirik izan. Aste batzuk geroago satelite bidez hartutako irudiek erakusten dutenez, eremu osoa guztiz suntsituta dago. Ekipa-

Goian, emakume palestinarrak ur-bidoiak garraiatzen Nuseirat errefuxiatu kanpamentuan, Gaza erdialdean.
Ramzi ABU AMER | EUROPA PRESS

mendu guztia hondakinen azpian desagertu zen.

2025eko apirilaren 7tik 13ra, MSFk 30.200 lagunentzako ura ekoizten zuen; hurrengo astean, 10.700 lagunentzako bakarrik. Zazpi egunean, %65eko beherakada. Irailean, Israel Gaza Hirian sartu zenean, MSFren ur-banaketa %95 jaitsi zen hiru astean zerrendako iparraldean. Erakundeak zisterna-kamioiak mugitzeko 27 eskaera egin zituen hamalau egunean, eta denak ukatu zizkion Tel Avivek. Hilabete horretan bertan, Israelgo indarrek argi identifikatutako MSF kamioi bati tiro egin zioten 10.000 litro edateko ur banatzen ari zela.

Beherakoa, sarna...

Elektrizitaterik gabe, Israelek genozidioaren hasieratik moztua eta puntualki bakarrik berrezarria, instalazio gatzgabetzaileek ez dute funtzionatzen. Erregairik gabe (Tel Avivek kontrolatzen du sarrera), zisterna-kamioiek ez dute zirkulatzen, eta putzuek ez dute urik ateratzen. Material humanitario guztia, gainera, COGATen iragazkitik igaro behar da. Organoak debekatutako gaien artean ospitaleetarako ponpak, kloro-pilulak eta larrialdietarako komunetarako plakak daude.

Txostenean kontatzen duen guztiaren osasun-ondorioak ere neurtzen ari da jada MSF. Inkestatutako lau gazatarretik batek beherakoa izan zuen elkarrizketa egin aurreko hilabetean. Khan Yunis hiriko kliniketan, kasuen %60 baino gehiago 15 urtetik beherakoei zegozkien. Urteko kontsulten ia %18 sarnarekin, zorriekin eta infektatutako zauriekin lotuta egon ziren iaz.

Edateko ur depositua betetzeak 25 shekel balio zituen Gazan 2023ko urriaren 7a baino lehen; egun 150 shekel ordaindu behar dira gutxienez, hau da, %500eko igoera izan du uraren prezioak

Emakume askok aurkitutako edozein oihal erabili eta berrerabili beste aukerarik ez dute hilekoa pasatzeko. Gatza eta ura erabiltzen dituzte infekzioak tratatzen saiatzeko

Txostenak, gainera, egoera okerrago baten berri ematen du: koleraren bakterioa ez da oraindik Gazan sartu, baina, sartzen bada, uraren eta saneamenduen kolapsoak berehala hedatuko luke jada guztiz suntsituta dagoen osasun-sistema batean.

Nazioarteko Justizia Auzitegiak 2024ko urtarrilean agindu zion Israeli gazatarrei urhornidura, higienea eta saneamendua bermatzea, eta bi hilabete geroago berretsi zuen agindua. MSFk ondorio argia atera du: bi ebazpenak ez dira kontuan hartu eta dokumentatutako politika nazioarteko zuzenbide humanitarioak debekatutako zigor kolektiboa da. «Ura eskuratzea arma bihurtzen denean, komunera joatea edo garbitzea eguneroko borroka bihurtzen denean», dio txostenak, «biziraupena eta giza duintasuna mehatxupean daude».

Gallantek infernua agindu eta bi urtera, palestinarrek biziraupena ur litrotan neurtzen jarraitzen dute. Promesa bete egin da, eta inolako auzitegik edo gobernuk ez du atzera bota. MSFren txostenak nola gertatu den dokumentatu du. Besterik ezin dute egin erakunde humanitarioek. Bi urte eta 73.000 hildako geroago, galdera bakarra geratzen da: noiz arte?

Zoraida DIAZ | EUROPA PRESS

IKUSMIRA

KOLONBIAREN NORABIDE POLITIKOA JOKOAN

Kolonbiarrek hitzordu garrantzitsua dute bihar. Datozen lau urteetarako presidentea eta horrekin herrialdearen norabide politikoa aukeratuko dute presidentetzarako hauteskundeen lehenengo itzulian. Pacto Histórico koalizioko hautagaiak, Ivan Cepedak, «erabateko bakearen» aldeko apustua berretsi du, talde armatuekin abiatutako elkarrizketa prozesuak berriro sustatuko dituela nabarmenduz. Paramilitarren eta narkoen abokatua izandako Abelardo de la Espriellak eta Paloma Valenciak, aldiz, militarizazioa eta mega-kartzelak agindu dituzte. Sare sozialek protagonismo nabarmena izan dute kanpainan, ez onerako ordea, baizik eta desinformazioa areagotzeko. Cepedaren kasuan, ustezko buruzagi gerrillari baten audio faltsu bat zabaldu zuten komunikabideek eta beste hautagaien kanpaina taldeek. Audioan, Kolonbiako hegoaldean Cepedaren alde bozkatzen ez dutenei mehatxu egiten die. Defentsa Ministerioak egindako ikerketa baten ostean, audioa estortsiogile batek egindakoa dela ondorioztatu eta atxilotu egin zuten. Era berean, egunotan adimen artifizialaren bitartez manipulatutako bideo bat zabaldu da sareetan, non Cepedak gerrillariak Indar Armatuen parte izango direla esaten duen. Anonimotasunean babestuta, sare sozialetan «interes zehatzak dituzten kontuak sortu» direla ohartarazi dute adituek. Ainara LERTXUNDI

SAHARATIK BARRENA (III)

Dakhla: kite-surf turismoak edertu nahi duen giza eskubideen zulo iluna

OKUPAZIOA/ Luali LEBSER

Rabatek azken urteotan ateak ireki dizkio luxuzko kirol turismoari eta kanpoko inbertsioak erraztu ditu Dakhlan. Okupaziopean dagoen Mendebaldeko Saharako hiria erregimenaren «irekieraren» ikur gisa erakutsi nahi du atzerrian Mohamed VI.a errege marokoarrak.

Said atzean utzi eta mendebalderantz hartu dut bidegurutzean. Ortzi-muga gorrixka bihurtzen ari da jada, eguzkiaren eraginez. Esana zidaten: «Dakhlara gutxi heltzen dira eguna oraindik ere erabat argia denean». Estatistikak ere apurtzera nentorrela sinetsia nengoen, baina berriro dena ederki sinkronizatua dagoen dantza batean nabilela iruditu zait. Argi horizontalak begiak kolpatzen ditu eta ozta-ozta ikusten da polizia kontrola. Nonahi daude.

Penintsulako istmoa zeharkatuta, bidearen bi aldeetara itsasoa ageri da, eta kolore biziko milaka kite-surf haizearekin jolasean ari dira. «Turismo makabroa», deitu zion behinola Equipe Media elkarteko Mohamed Mayara presidenteak Europako bidaia agentziek eskaintzen duten produktuari. Aaiunen ostatu batean Mayararekin egoteko zain nengoela, polizia atzetik zelatan nuela ohartarazi zidaten, eta ez genuen biltzerik izan. «Agentzia gehienak frantsesak eta espainiarrak dira. Webgune zoragarriak dituzte eta Marokoren dirulaguntzak jasotzen dituzte bertako turismoa sustatzeko. Turismo elitista da Dakhlakoa eta gatazka ez dela existitu ere egiten sinetsarazi dute kanpoan», nabarmendu zidan telefonoz Aaiunen nengoela deitu nionean.

Bidaia agentziekin kontaktuan jartzeko atarietan ematen dituzten telefono gehienak +34 eta +33 aurrezenbakiekin hasten dira, hots, espainiar eta frantziarrak dira. Sahara okupatura libreki sartzeko modurik errazena, edo bakarra, turismoa da. Kazetariak ez dituzte libreki onartzen. Reporters Without Borders elkartearen arabera, Marokon prentsa aniztasuna itxura hutsa da. Informazio askatasunari dagokionez, mundu mailan indize baxuena duten herrialdeen artean dago.

Dakhlan eguna kit-surf egiten igarotzeko tarifarik merkeenak 150 eurokoak dira. Gosaria, afaria eta kite-surf materialaren alokairua sartzen dira, ez ordea bazkaria. Hotelak, berriz, luxuzkoak dira, hondartza pribatu eta guzti. Bertakoek libreki sartzea debekatuta dute hotelean, hala esan dit Mohamed atezainak; Fezetik etorritako kolonoa da. «Han ez nuen jatekorik, baina hemen, gure erregeari esker, badut», dio Mohamed VI.a erregearen argazkia seinalatzen didan bitartean. Inprimatuta dudan erreserbari begiratzean, honakoa dio harrituta: «Soilik ikastaroa egin behar duzu? Turista denak hotelean lotan gelditzen dira, hirian ez baitago ezer, arrain usaina besterik ez!».

Hotelean, nire irakaslea izango den D aurkitu dut (ez dut izenik emango, kazetaria nintzela ez bainion aipatu ere egin). Essauirakoa da. Aljeriarrak gorroto ditu, haiek «asmatu duten gatazka batengatik» lana kendu nahi diotelako. Marokon duten arazo handiena ez da barneko ustelkeria, ezta giza eskubideen etengabeko urraketa ere. «Israel eta estatubatuarren laguntzarekin Aljeria eta Polisarioa behin betiko suntsitu behar ditugu, asko zibilak direla inporta gabe», esan dit aztoratuta D-k.

Kite-surfa ez da nire kirolik gustukoena; ez naiz batere trebea. Baina luxuzko oporleku hauetako bezeroak nortzuk diren ezagutzeko balio dit. Gehienak dirudun frantses eta espainiarrak dira. Royal Air Maroc konpainiak hegaldi zuzenak antolatzen ditu Europar Batasuneko hiri garrantzitsu askotatik. Badira nomada-digitalak ere, prezio altuen kexu direnak. Barregura ematen du nomada-digitalak nomadismoaren lurraldean kexaka ikustea. Denek gauza bera diote: «Hirian ez dago ezer. Hau kite-surf eremua da, besterik ez. Hotelean baduzu denda bat, baita gau osoa irekita dagoen taberna bat ere, whiski garesti eta guzti», azaldu dit Jean Claude belgikarrak. 60 urte inguru izango ditu, eta burtsan egiten du lan.

Hotelean badira "hippy" gazte aberatsak ere. Phillipe frantsesa da eta berak ere burtsan lan egiten duela esan dit; 15 euro balio dituen garagardo bat ari da edaten, eta bere burua anarkokapitalistatzat du. Bere diskurtsoan «meritokrazia» hitza da erabiliena; esan beharrekoa ondo ikasia du. Osaba bat Nicolas Sarkozy presidentearekin ministrorde izan zela esatea ahaztu zaio ordea; bere lagun

Jeanek gogorarazi dio amaieran «meritokrazia» hitza berriro entzunda. Diskurtso jantzia duela pentsatu dut, ez nire gogokoa, baina oinarrizko argudio batzuk baditu. Halere, inguruotan gatazka bat dagoenik ere ez du entzun; beste garagardo bat eskatu du merkatu askatasunagatik topa egiteko.

ITZAL ILUNEKO KITE-SURF HIRIBURUA

Beste Said bat ezagutu dut, honako hau ere Gipuzkoan ibilitako saharararra. Hiria erakutsiko didala hitzeman dit. Baina ezin omen naiz berarengana zuzenean joan. Merkatu batetik gertu dagoen kale estu batean sartzeko agindu dit, ondoren etxe zahar bateko atea bultzatzeko («deitu gabe bultzatu», eskatu dit) eta bertan aurkituko dudala. Marokoren aurka protesta

Dakhlako etxe bateko gelan, ekintzaile sahararrak Saharako bandera eskuan. Bandera edukitze hutsagatik espetxeratu ditzakete.
Luali LEBSER / RONAK PRESS

egiteagatik kartzelan egon da bi urtez. Bertatik atera eta Mohamed VI.ari barkamena eskatu ez zionez, guardia batek argi esan zion; «ez duzu asko iraungo osorik». Bi egunera hiru kolono gerturatu eta aurpegian, bi eskumuturretan eta bizkarrean matxete batekin zauritu zuten. «Kuartel baten aurrean izan zen eta hogei minutu iraun zituen erasoak. Ez zen inor agertu. Bertan zeuden bi kamioilariengatik izan ez balitz, ez nintzateke hemen egongo», kontatu dit Saidek, zauriak erakusten dizkidan bitartean. Ihes egin omen zuten erasotzaileek. Bi asteren buruan atxilotu zituzten, baina 24 ordu baino lehen kalean zeuden. Horietako batek oraindik mehatxatu egiten omen du.

Bere autoaren atzeko partean esertzeko eskatu dit Saidek. Kristalak belztuta ditu eta ezingo naute ikusi *majzem*-eko langileek (*majzen* hitzak, kaleko arabieran, botere ez-demokratiko moduko bat adierazten du, itzalean den aginte bat, hitzak itzulpen argirik ez badu ere). «Hemen paretek entzun eta ikusi egiten dute. Txikitatik ogia saldu dizun agureak poliziari informazioa pasako dio. Espirituz ahulak dira kolonoak, denak dira beldur sahararren aktibismoaren erruz. Telebistak ez du 'saharar' hitza erabiltzen, ezta 'Polisario' ere, baina Estatuaren etsaiak edo kanpoko nazioentzat lan egiten duten agenteak nonahi daudela sinetsarazten diete. Informazio baliagarria ematen badute, ordainsari bat jasotzen dute. Informazio hori edozer izan daiteke: gizon asko ikusi dituztela etxe batean sartzen, auto ilara susmagarriak pasa direla norbaiten etxe aurretik, pintura beltza erosi duela norbaitek denda batean [Marokoko banderan ez dago kolore beltzik, bai ordea Saharako Errepublika Arabiar Demokratikokoan]...», azaldu dit Saidek autoko ispiluetatik begiratzen duen bitartean. «Atzetik jarraika ditugu» esan eta kale batean bira eman du tupustean, beste bira bat eskuinera gero, eta beste bat ezkerrera. Motorra itzali eta bost minutu isilik pasa ditugu. Berriro motorra piztu eta 300 bat metrora geratu gara. «Nik esatean, segi zabalik dagoen atera. Orain!», agindu dit.

Etxearen barruan emakume hotsa entzun dut, baita ume presentzia ere, baina zuzenean egongela batera eraman naute. Bertan saharar independentista talde bat dago; Saharako Errepublika Arabiar Demokratiko bandera bat dute eta aurpegiak estalita dituzte. «Ez dizugu izenik esango», esan dit taldeko altuenak. Beste zerbait gehitu du taldeko lodienak hassanieraz: «ezin dizugu esan non gauden ere. Bandera hau edukitze soilik urte luzeko kartzela zigorra eragin dezake». Gauaren iluntasunean, kaleetan Polisarioaren eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldeko pintadak egiten dituztela esan didate. Baita erregearen eta kolonoen aurkakoak ere. Armarik ez dutela gehitu dute, ez dutela biolentziarik nahi, kolonoak Mendebaldeko Sahara okupatura behartsuak direlako etorri direla. Taldeko lodienak honako hau ere gaineratu du frantsesez azken unean: «Nazio Batuak Marokoren maila berean kokatzen ditugu. Gure ustez, Maroko, Frantzia eta Ameriketako Estatu Batuen babesle dira Nazio Batuak, gure kausa behin eta berriz atzera botatzen baitute. Uneotan gure kide bat desagertuta dago, Lahbib Aghrichi. Badakigu hil egin dutela. Ofizialki ez da ilegala Nazio Batuen aurka protesta egitea, baina Mohamed VI.ak ondo daki nortzuk egiten duten horren aurka eta galbahe moduan erabiltzen du: Nazio Batuen aurka zaude, Rabaten etsai zara, beraz, zulora». Lodia berotu egin dela eta altu hitz egiten ari dela ohartuta, altuak baxuago hitz egiteko eskatu dio kezkatuta. Emakume bat sartu da aurpegia estalita egongelara. Susmoa dute kanpoan dagoen auto bat ez ote den poliziarena. Atzeko atetik irten eta Saidek jaso nau berriro. Autoaren atzeko eserlekuetan eseri naiz; kristalak ilunduta ditu, eta, beraz, inork ezin nau ikusi. Hori bai, nik ez dut arazorik Dakhla hiria ikusteko.

Autoa hiriaren sarreran utzi dut, eta oinez itzuliko naizela esan diot Saidi. Eskerrak eman dizkit eta nik ezetz, nik eman behar dizkiodala. Berak egiten ari naizen bidaia egitearen ausardia eskertu dit: «Hil egin zaitzakete eta droga gaindosi bat izan duzula esan. Dakhlara ez da kazetaririk sekula etorri zu bezala».

Iparrerantz jo dut. Lahbib Aghrichiren senideen protestatik pasa eta argazkia atera nahi izan diet mugikorrarekin. Aurpegia estali dute kartel atzean, beldurtuta. Barkamena eskatuko nieke. Beraiekin hitz egin nahiko nuke. Ezin ordea susmorik piztu gabe. Segundo gutxira polizia agertu zait. «Zer ari zara? Hirian ez dago ezer! Zoaz kitesurfa egiten duzun tokira!».

Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa

Itxaropena

Kontatzen digutenaren arabera, hirien tamaina handitzen eta handitzen joango da tenperaturen igoerekin batera. Ematen du ekohirietan pentsatzea ezinbestekoa dela. Biztanle gehienen bizilekuak beroaldi eta eurite egoera bortitzei aurre egiteko prestatzen joan beharko dugu, eta horrek hiriaren eremua aldatzea behartzen du. Hiriak berde egitea ez da moda bat, gure bizilekuen norabide aldaketa bat baizik. Eraikinak energia gutxi kontsumitzera egokitzeko prozesuan dauden bezala, kaleak eta bideak euri xurgatzaile izateko eta freskatzeko funtzioa betetzeko bideratuta daude. Orain arte "parke" zirenak orain "azpiegitura berde" izena hartuko dute, baina, izen aldaketarekin batera, parkea beste parkeekin jarraitutasunean jartzeko ideia barneratu nahi da. "Azpiegitura berde" oximorona eta "zerbitzu ekosistemikoak" dira hirietan txertatu nahi diren ideiak. Izendapen egokiena ote den alde batera utzita, hirietan dauden birika berdeak elkarrekin lanean jarri nahi dira, erabilera funtzional biologiko gehiago ezarri nahi zaizkio eta azalera berde gehiago gaineratu nahi dira sare berdera. Gainera, sare berde hori hirien mugaz gaindiko beste espazio berdeekin batera loturan jarri nahi da. Bada zeozer.

Landaredia eta basoak ere hirietako ekipamenduak dira, funtzio bat betetzen dutelako, osasun zentro edo haurtzaindegi baten pareko. "Zerbitzu ekosistemikoak" esaten zaio begetazioak hirietan ematen dizkigun onuren paketeari. Airea garbitzen dute, karbono dioxidoa xurgatzen dute, uraren zikloa orekatzen dute, kutsadura gutxitzen dute, tenperatura jaisten laguntzen dute, osasun mentalean eragin positiboa dute... Iturri amaigabea dira, onura eragile bonba bat. Zuhaitzak dira zerbitzu ekosistemikoetan erreginak, baina landaredia dibertsitate aberats batek animalia eta intsektu aberastasuna ekartzen du, ekosistemaren desorekak orekatzen dituena (plagak adibidez). Eta berdea dena jangarri egiten badugu, beste oinarrizko funtzio bat gaineratuko dugu.

Aurreko paragrafoetan idatzitakoak etorkizuneko begirada katastrofistari ihes egin nahi dio, eraldatzailea izan nahi duelako. Hain dira ilunak batzuetan iristen zaizkigun iragarpenak, beldurrak hartzen gaituela. Eta beldurraren emozioa ez da lagungarria, geldiarazten gaituelako, ezer egiterik ez dagoela sinetsarazi arte, edo bunker klimatikoak eraikitzera bultzatu ziztu bizian.

«Izuaren aurrean, itxaropen militantea aktiba dezagun», defendatzen du Santiago Beruete iruindar idazleak. Gizakiaren joera naturala landatzea da; betidanik, ongizatea bilatu eta beste narratibak aurkitzeko garaian, landatzea salbazioa izan da. Joera horrek ez du positibismo komertzial, hutsal eta naifarekin zerikusirik. Gizakia naturalki den "horrekin" konektatzeko deialdia da, eta ingurune natural eta urbanoak sortzeko gonbit aktiboa. Landaketa kolektiboaren prozesuan azaleratu daitezke klasearen materializazioa, plazer nartzisista eta lotura espirituala, koktelera kontraesankor eta eder batean.



Ilustrazioa: Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Lur ALBIZU ETXETXIPIA**

Yoko Ono

Ez dakit Yoko Ono ezagutzen duzuen. Bistan da baietz, baina badaezpada, Wikipediaren lehen lerroak kopiatuko dizkizuet: «Yoko Ono Lennon Tokion jaiotako artista abangoardista da. John Lennonen bigarren emaztea eta musa izan zen». Bigarren esaldian bertan noren emaztea izan zen aipatzeak zein esanahi duen beste egun baterako utziko dugu; egia da, hala ere, lotura horregatik ezagutu dugula askok. Nik, adibidez, ez dakit zer ezagutu nuen aurretik, Yoko Ono bera edo *"La culpa de todo la tiene Yoko Ono"* Def Con Dos taldearen abestia. Bueno, kontua da The Beatles taldearen bereizketaren errua berea zela esaten omen zela. Mendebaldeko kultura misoginoaren beste kapitulu bat, finean. Nahikoa gogoratzen ari naiz esaldiarekin.

Askotan mintzatzen gara azkenaldian erreakzioaz. Nire gai gustukoenetako bat da, ez dut ukatuko. Gustukoenetan gustukoena, erreakzioaren askotarikotasunaren barruan, feminismoaren aurkako aldaera da –oso oparoa, bide batez–. Laburtzen saiatuko naiz lagun adituek eta arituek esaten dutena: azken hamarkadetan emakumeek espazio publikoa irabazi dute (pixka bat) eta gizonek galdu. Pribilegioen pitzatze txiki bat egon da eta gizona ez da hain unibertsal, batzuetan etxeko lanak egiten ditu eta ikasi du gorputz batzuk ez direla soilik bereak berak hala erabaki duelako. Hau guztia sakonagoa da, noski, baina luzatuko nintzateke.

Lehentasunen ordena zertxobait aldatu da azken urteetan. Askatasun eta eskubide batzuk irabazi ditugu (ez beti, ez osoki, ulertzen didazue). Hogeita hamar urteroko zikloa dela esaten dute aditu eta aritu horiek: eskubideak irabazi, norbaitek pribilegioren bat galdu, arrakala batzuk sortu, erreakzioa. Hau da: batzuk haserretu egiten dira, galdu duten partzela zatitxoa berreskuratzeko gogoz. Eta Yoko Onoren errua dela diote.

Erdi suminduta erdi arrazoi izateko gogo biziz, honakoak esaten dizkigute –esate baterako–: «Emakumeak merkatura atera ziren; geroztik, denok galdu dugu!»; «ez dugu haurrik, feminismoaren erruz»; «bakarrik bizitzea edo/eta familiarik –ulertu familia bere zentzu arautuenean– ez izatea neoliberalismoa da!». Errua badakizue zeinena den.

Esaten ez dutena da emakumeok espazio publikoa betatua –hori bai betoa!– genuela, enplegutik hasi, kontu korrontearekin jarraitu eta oheraino. Espazio pribatu osoa opari, etxeko "agintariak" izateko pribilegioa izateraino, kasik. Ederra. Esaten ez dutena da ez genuela haurrak izan edo ez erabakitzeko ez ahalmenik, ez baimenik, ezta gaitasunik ere. Eta ahal izan zutenean, milaka emakumek erabaki zutela oinordekoak izan edo ez, eta besteko askok erabaki ahal izan zutela –antisorgailuak ere debekatuta zeudelako, pentsa!–, behintzat, kopurua gutxituko zela. Zergatik aipatzen da gai hau berria balitz bezala? Esaten ez dutena da komunitatearekiko ardura gauza bat dela, eta beste bat erabaki ahalmenik gabeko bizitza edukitzea. Bide batez, gizonek inoiz "libreki" "hautatu" ez dutena.

> «Askotan mintzatzen gara azkenaldian erreakzioaz. Nire gai gustukoenetako bat da, ez dut ukatuko. Gustukoenetan gustukoena, erreakzioaren askotarikotasunaren barruan, feminismoaren aurkako aldaera da»

Ez ezazue zeuen burua engainatu: emakumeok askatasun eta eskubide batzuk irabazi ditugu eta atzerakada etor daiteke. Baina espazio publikoa ezagutu –eta praktikatzen– dugu, emantzipazioa zer den badakigu eta zertarako gai garen ere bai. Gauza batzuek ez dute atzera bueltarik; Yoko Onori errua botatzen segi dezakezue, baina horrek ez zaituzte iraultzaileago eginen. •

ERREPARAZIO KOLEKTIBOA, ORIOKO KASUTIK IKASTEN

Asier AIESTARAN

Sortzen aholkularitza zerbitzuko Sheila Melcon psikologoak «Indarkeria matxista eta erreparazio prozesuak» hitzaldia eskaini zuen duela aste batzuk Orion. Esperientzia zabala du horrelako egoerak kudeatzen, eta kostaldeko herrian egin den lanketa ere oso gertutik ezagutzen du.

Azkenaldian pil-pilean dagoen kontzeptua da erreparazio kolektibo edo erreparazio komunitarioarena. Historikoki ohikoa izan den ikuspegi indibidualaren ordez, erreparazio mota honek min kolektiboa hartzen du kontuan, eta indarkeria ahalbidetzen duten sistema eta estrukturak eraldatzea bilatzen du. Indarkeria matxistaren kasuan, mugimendu feministak urteak daramatza erreparazioaren gaiaz sakon hausnartzen eta ekinbideak birpentsatzen.

Erreparazio prozesu kolektiboez badakite zerbait Orion. Lourdes del Hoyoren hilketak kolpe handia eragin zuen herrian duela hiru urte, erasoa egun argiz gertatu zelako, haurrez betetako parke baten inguruan, eta bai biktima bai erasotzailea herrikoak zirelako. Udalak, mugimendu feministarekin elkarlanean, martxan ipini zuen erreparazio prozesuak bere gorabeherak izan ditu gerora, baina eredu bilakatu da beste herri eta auzo askorentzat.

Erreparazioa lortzeko bide horretan, konturatu dira hiru urte pasa arren lanketa bat egiten jarraitzea garrantzitsua dela, oraindik badaudelako beldurrak, kezkak eta zalantzak herritarren artean. Eta lanketa horren barruan, duela hilabete pare bat "Indarkeria matxista eta erreparazio prozesuak" hitzaldia eskaini zuen Sortzen aholkularitza zerbitzuko Sheila Melcon psikologoak, adibide praktikoz betetako solasaldi argigarria.

Prozesu biziak

«Gaur ez dugu bakarrik minaz hitz egingo, baizik eta behin mina egonda, nola joan haratago eta nola sortu espazio erreparatzaileak, bai biktimentzat eta bai komunitatearentzat. Hiru urteren ostean oraindik pentsatzen gaude honi nola buelta eman, pentsatzen gaude min hori nola atera gure barrutik, nola kolektibizatu min hori, nola egin elkarrekin bide bat», izan zen

Sheilaren abiapuntua Salatxo aretoan bildutako entzuleen aurrean.

Erreparazio prozesu horretan, gertatutakoari hitzak jartzearen garrantzia nabarmendu zuen. «Hasiera horretan erreparatzailea izan zen hitzak jartzea bera. Lan oso mingarria izan zen batzuentzat. Guk hasieratik oso argi geneukan indarkeria matxista izan zela, eraso matxista bat egon zela, eta horren aurrean sendatzeko bidea hasteko lehen lana izan zen hitzak jartzea: hau gertatu da testuinguru jakin batean, indarkeria ez da Orion gertatu den gauza bat bakarrik, indarkeria estruktural bat dago, eta orduan goazen pentsatzera ez bakarrik gertatzen denean zer egin, baizik gertatu aurretik zer egin ere».

Ildo horretan, erreparazio prozesu batean aurrez egindako lana ere garrantzitsua da. «Aurrekoan galdetzen zidaten: 'erreparazioa noiz hasten da?'. Ba jada hasita egon beharko luke. Sentsibilizazioa bera jada badelako erreparatzailea biktimentzako. Eta gero galdetu zidaten: 'noiz bukatzen da?'. Eta hori bai ez nuela jakin erantzuten. Oso prozesu konplexuak dira eta biktima bakarra ez dago. Biktima bakoitzak bere bidea, bere denborak, bere erritmoak ditu. Bakoitzak bere motxilak ditu», azaldu zuen Sheilak.

Alegia, erreparazioa prozesu bizi eta aldakorra dela. «Ibilbide bat da, prozesu bat, eta horregatik bizirik dagoen zerbait da. Agian hemendik hamar urtera berriz hemen biltzen gara eta hitz egingo dugu nola gauden, eta hori ere izango da erreparazioa. Hemendik hamar urtera ere aukera izatea hitzak jartzeko gertatutakoari, bakoitzak bizitakoari».

Denboraren faktorea hobeto ulertzeko, Nevenka Fernandez leondarraren kasua aipatu zuen Sheilak. «Zenbat urte behar izan ditu herri batek bere erreparazio prozesua egiteko? Ba hogei bat. Hau 2000ko hamarkadan gertatu zen. Lehen emakumea izan zen ausartu zena hitzak jartzen lantokian jasotako eraso sexualei, jazarpen sexualari. Bere herritik kanporatua izan zen, herriak bota zuen. Herria orduan ez zegoen prest hau guztia ulertzeko».

Argazki nagusian, mugimendu feministak azaroak 25 batean Lourdes del Hoyo hil zuten bankuan jarritako oroigarria. Lerro hauen gainean, Sheila Melcon, Salatxo aretoan eskainitako hitzaldian.
Gorka RUBIO - Jon URBE | FOKU

«Orain sinisten dugu gertatu zena, orain badakigu ez zuela berak alde egin behar, berak herrian geratu behar zuela. Baina memoria apur bat dugunok badakigu 2000ko hamarkadan nola zegoen arlo horretan Estatua, zer egiten zen indarkeria kasuetan. Nevenkaren kasuan orain bada dokumental bat, liburu bat, mural bat bere herrian... Eta bere kaleak bereak dira. Orain, azkenean, kaletik doanean ikusten du errekonozimendu bat badagoela. Eta nolabait dio: 'orduan ezin izan zenuten, baina orain posible da erreparazioa'. Alegia, hogei urte beranduago ere egin daitezke horrelako zaintza prozesuak».

Indibidualizazioa ekidin

Erreparazio komunitarioaren beste ardatz bat biktima erdigunean jartzea da, eta bere beharrak kontuan hartzea.

Gertatutakoari hitzak jartzearen garrantzia nabarmentzen du Melconek: «Guk hasieratik oso argi geneukan indarkeria matxista izan zela; indarkeria ez da Orion gertatu den gauza bat bakarrik, indarkeria estruktural bat dago»

«Aurrekoan galdetu zidaten: 'erreparazioa noiz hasten da?'. Ba hasita egon beharko luke. Sentsibilizazioa bera badelako erreparatzailea biktimentzako. Eta gero galdetu zidaten: 'noiz bukatzen da?'. Eta hori ez nuen jakin erantzuten»

«Erreparazio feministak beti erdigunean jartzen duena biktima da, dauden botere harremanak azalarazten ditu, eta komunitatea hasten da inplikatzen. Feminismotik erreparazioaz hitz egiten hasten garenean, pentsatu behar duguna da: 'zer paper du komunitateak honetan guztian? Zer egingo dugu guk komunitate bezala? Zer egingo dugu instituzio bezala?'».

Alde horretatik, zenbait prozedura birpentsatu beharraz hausnartu zuen. «Herrian indarkeria kasu bat izandakoan protokolo bat jarri izan da martxan, halako A-B-C moduko bat. Guztiontzako berdinak diren jarraibide batzuk erreparazio publiko horretarako. Eta ez luke hala izan behar. Kasu bakoitzean biktima bakoitzari entzun beharko litzaioke zer nahi duen. Bera erdigunean jarri eta esan: 'zuk nahi duzu herriak jakitea biktima zarela?'. Ba agian ez. 'Zuk nahi duzu kontzentrazio bat egitea?'. Ba agian ez. Baina presio itzelak daude biktimari esanez 'salatu egin behar duzu', 'hau salatu beharra dago indarkeria delako'. Bai, baina batzuetan salaketa bera izan daiteke biktimarentzako birbiktimizatzailea, eta ez erreparatzailea», ohartarazi zuen.

Oriori dagokionez, Lourdes del Hoyoren hilketak panorama konplexua utzi zuen, kalean eta egun argiz gerta-

«Normalean, bakoitzak bere minak berekin eramaten ditu etxera. Edo indibidualizatu egiten da eta terapia indibidualetara eraman. Baina kolektiboki erreparatu nahi badugu hasi behar dugu elkarrekin eseri eta hitz egiten»

tu izanak zeharkako biktima asko egotea ekarri duelako, eta horrek are beharrezkoago egiten baitu erreparazio kolektibo bat. «Erailketa matxista publiko bat izan zen, kalean gertatu zena, beraz, zuek zarete inpaktu hori jaso zenutenak. Eta inpaktu hori sendatzeko behar dugu eseri, hitz egin eta bide komun bat egin: zer egin nahi dugun, nola, noiz... Normalean, bakoitzak bere minak berekin eramaten ditu etxera. Edo indibidualizatu egiten da eta terapia indibidualetara eramaten da. Baina kolektiboki erreparatu nahi badugu, hasi behar dugu elkarrekin eseri eta hitz egiten: nola gauden, zer egin desberdin... Izan ere, terapia indibidualizatzen badugu, dena atomizatzen da eta bakoitza geratzen da bere min indibidualean, baina hau kolektiboa da».

Hitz egin eta kolektiboki hausnartu beharraren adibide da Lourdes hil zuten bankuaren inguruko eztabaida. «Bankua sinbolo erreparatzaile bat da. Guk Udalarekin lanketa honi ekin genionean argi genuen egon behar zuela leku erreparatzaile bat, non jendeak berarekin konektatu, non agur esan, non lasaitu, non arnastu. Jende askok banku hori ez du leku seguru moduan sentitzen, arrotza egiten zaie, ez dute bertan egon nahi. Baina horrek ez du esan nahi kendu egin behar dugunik, batzuek oraindik behar dutelako hor egotea», defendatu zuen Melconek.

Epaitegietatik zer espero?

Erreparazio bide berriak pentsatzeak berekin dakar betikoak zalantzan jartzea, epaitegietatik etor daitezkeenak, esaterako. Eta lehen hausnarketa da gaur egungo epaitegiak nekez izan daitezkeela erreparatzaile indarkeria matxista kasuetan: «Askotan esaten dizute: 'salatu'. Badakizue zer gertatzen den salaketa baten ostean? Bi-hiru urteko prozesu oso gogorrak, eta agian pertsona horrek behar duena da bide horretan babes psikologiko bat, lagunak inguruan, agian tuperrak bazkaltzeko... Agian erreparazioa eguneroko horretan dago, baina prozesu judizialak bere horretan ez dio erreparaziorik eskainiko. Are gehiago, agian amaieran ez dio-te ezta arrazoia ematen ere, ez daudelako froga nahiko edo dena delakoa».

Epaitegietako bidean irekitzen den debateetako bat punitibismoarena da: «Tripak esaten du 'zigorra'. Baina gero hasten bagara tripatik burura igo eta pentsatzen, 'gure jendarteak zer behar du? Zigorra behar du?'»



Eta arrazoia emanda ere, hor beste debate sakon bat irekitzen da, punitibismoarena, Sheilak adibide argigarri batekin mahaigaineratu zuena. «Nik hona 'La Manada' auziko kasua ekarriko banu, non zigor gogorrena 13 urtekoa izan den, eta galdetuko banu zuek zer nahi duzuen, 13 edo 40, zer esango zenukete?» Entzule batek 'bizitza osoa' erantzun zuen. «Biziarteko zigorra, beraz?» Pertsona horrek 'bai' erantzuten zuen. «Eta heriotza zigorra?» Isiltasun deseroso bat nagusitu zen aretoan.

«Hori begirada oso punitiboa da, tripetatik egiten dena. Normala da. Tripak esaten du 'zigorra'. Baina gero hasten bagara tripatik burura igo eta pentsatzen, 'gure jendarteak zer behar du? Zigorra behar du? Edo behar du hitzak jartzea gertatzen ari denari?'. Erreparatzeko, agian, zigorra ez da nahikoa. Bai, agian heriotza zigorra jartzen baduzu tipo bat gutxiago. Baina zer jendarte daukagu? Horrek ez du sendatuko, horrek ez du erreparatuko gure estruktura. Horregatik joan behar da estrukturara», aldarrikatu zuen.

Erasotzailearekin eta bere inguruarekin lanketa bat egitea proposatu zuen, adibide desberdinak jarriz, betiere biktimaren beharrak kontuan izanda. «Batzuek agian ez dugulako kartzela sisteman sinisten, beste sistema batzuk sortu nahi ditugulako. Edo ez dakit sortu, baina behintzat bai pentsatu. Nola izango litzateke posible zigorrik gabeko erreparazio bat egitea? Ez du esan nahi mugarik ez denik egongo. Guztiz kontrakoa, erreparazioan mugek oso argiak izan behar dute, baina inoiz ez da posible izango denak pozik uztea, hori ere horrela da».

Horregatik, gizonekin egin behar den lana ere benetan garrantzitsua dela esan zuen. «Gizon askok ez dakite egin dutena eraso bat denik ere. Gutxitan izaten da, baina gizon taldeekin lan egiten dudanean eta aipatzen diedanean 'hau eraso bat da', askotan sumatzen ditut elkarri begira, esanez 'hori eraso bat baldin bada, zenbat eraso egin ditugu guk?'».

Beste orriko argazkian, hitzaldiaren une bat. Lerro hauen gainean, «La Manada» auziko erasotzaileak finantzapean aske utzi zituzten egunean Iruñean egindako protestaren irudia.
Jon URBE - Jagoba MANTEROLA | FOKU

Eta adibide moduan Luis Rubialesek Jenni Hermosori egindako erasoa jarri zuen: «Jennik desio ez duen gerturatze hori egiten duenean, musu hori ematen dionean, zuek uste duzue gaur egun ere Rubialesek pentsatzen duela bera erasotzaile bat dela? Ez dauka ideiarik ere. Epaiketak argi esan du: 'erasotzaile sexuala zara. Ez dago intimidazioa frogatuta, baina erasotzailea zara'. Ba berak argi dio, egin zuen bakarra ospatzea izan zela. Baina ospakizun hori indarkeriaz beteta dago, botere harreman bat dago, eta hori dena argitu beharra dago, hitz egin beharra dago».

Epaitegietako beste erreparazio bide bat ekonomikoa izaten da, ohikoena beste edozein indarkeria kasutan, baina indarkeria matxistaren kasuan beti ezbaian egoten dena. «Zergatik ez erreparatu diruarekin? Beste hainbat gertaera erreparatzen dira diruarekin. Oraintxe nire ahizpa kamioilari batek hiltzen badu nik kalte-ordain bat izango dut senide bezala. Eta diru horrekin nik terapia edo beste edozer egingo dut. Baina indarkeria matxista edo indarkeria sexualaz ari bagara eta biktimak dirua onartzen baldin badu, inork ez dio sinistuko», arbuiatu zuen Sheilak.

Psikologoak argi du: «Kalte-ordaina ez da erreparatzailea, baina bada sinbolo bat. Errekonozitzen dugu nolabait ezin izan duzula zure bizitza normala egin. Eta hor beste lan bat dago: konturatu behar dugu diru hori erreparazioaren parte dela, lagungarria izan daitekeela, baina ez duela inolaz ere zure isiltasuna erosten».

Ikuspegi feministaren garrantzia

Oztopoz beteta egon ohi den bide horretan, sarritan akonpainamendua eta biktimaren alboan egotea bera izaten da erreparaziorik handiena. Eta hor mugimendu feministaren garrantzia erabatekoa da. «Gipuzkoan sei hilabetetik gora behar ditu Diputazioak psikologo bat bidaltzeko. Sekulako garrantzia du Emakumeen Etxeek egiten duten lanak, non beti dago psikologo edo abokaturen bat, eta aste pare batean erantzun bat bideratu daiteke. Askotan erakunde batzuetatik baztertu egiten gaituzte, 'zuek ez zarete teknikariak, feministak zarete' esanez, baina ez dira konturatzen guk biktima horri astebeteko epean akonpainamendu bat eskaintzen diogula, ezin duelako haien zain egon hilabeteetan zehar».

«Feminismoa instituzioetan sartzen joan denean joan gara ikusten egiturak ezin duela izan horren zurruna, aldaketak txertatzen joan behar dugula biktimen beharren arabera. Psikologoarekin zortzi saio eta dena sendatuta? Ba ez da horrela. Edo haur bati egindako erasoen kasuan, zortzi sesio? Zortzigarrenean, agian, zerbait kontatzen hasiko da, ordura arte konfiantzarik ez duelako. Pixkanaka egitura aldatzen joan behar dugu, birpentsatuz politika publikoetan nola landu zaintza prozesu hauek», gehitu zuen.

Azken batean, aldaketa handiak lortzeko aldaketa txiki askoren batura behar delako. «Erreparazioaren inguruan badago nolabaiteko idealizazioa, pentsatuz erreparazioak dena konponduko duela», onartu zuen Sheilak. Baina horren aurrean keinu txikien garrantzia nabarmendu zuen: «Askotan horrelako aldaketa txikiekin, eguneroko keinuekin, asko egin daiteke».

Gizonekin egin behar den lana garrantzitsua da Melconen iritzian. «Askok ez dakite egin dutena eraso bat denik ere. Zuek uste duzue gaur egun ere Rubialesek pentsatzen duela bera erasotzaile bat dela? Ez dauka ideiarik»

Erakundeen prozeduretan ere ikuspegi feminista txertatzearen garrantzia nabarmentzen du psikologoak: «Pixkanaka egitura aldatzen joan behar dugu, birpentsatuz politika publikoetan nola landu zaintza prozesu hauek»

Amaia
BALLESTEROS

IRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK

Itzultzeaz

Maider IANTZI GOIENETXE

Ukitua ernatu naiz. X-rekin amestu dut, eta sentimendu atsegin eta desatseginen korapilo batean trabatu naiz. Zuei ere gertatuko zaizue sentsazio hori itsatsita gelditzea egun osoan, egiazkoa balitz bezala. Izan, bada, bizi izan dugu-na birbizitzen baitugu batzuetan ametsetan. Kasu honetan, gogoeta bat piztu zait: «Zein toki egin behar diet oroitzapen horiei osasuntsu bizitzeko?».

Haserrea, amorrua, biktimismoa, beldurra, tristura... eragin izan didate, eta horiek onartuta, ikasgai bezala gordetzea izan daiteke onena. Eta aitzinera egitea. Pasatakoarekin ez tematzea eta barkatzen jakitea, batez ere norbere buruari. Sinpleenari heltzea, nahasi gabe.

Igor Fernandezek hagitz eder idatzi du ZAZPIKAn: «Mindu gintuena ahanztea inporta izan zitzaiguna ahanztea litzateke, baina beti oroitzeak, antzinako irudiak, sentsazioak eta erreakzioak ekartzeak, inporta zaizkigun bertze gauza batzuk atzentzea ere eragin dezake (...) Zenbaitetan, gogoratzea saihetsezina da (...) baina gure lana izan daiteke min ematen digunari bidea irekitzea, ez irekitzea edo mugatzea, osotasunean inbertitzeko, hau da, gure minaz aparte edo minari esker garen horretan».

Bizitza oroitzapenen oroitzapenak direla dio Idoia Asurmendik, eta oroitzea bihotzetik berriz pasatzea dela. Esaldi horiek kopiatuak ditut album batean, eta abeslariaren ahotik Elvira Sastreren poema hau aditzean aunitz hunkitzen naiz: «*Todas mis espinas se han convertido en rosa y ahora mi vida huele a flor*».

Azken aipu bat, Xabier Amurizaren "Naiz naute" lan berrikoa, bizipen onak pasatzen direnean senti dezakegun pena arintzeko: «Orain gozatzen naiz sentituz oroimena dohatsuago dela errealitatea baino. Errealitate hura dohatsua zen, noski, baina ez nintzen gehiegi ohartzen alderdi horretaz. Orain, oroimenak hantxe kokatzen nau berriz, baina oharmen osoan. Errealitate hura amaitu egiten zen. Arin amaitzen zen. Pena hori gertaeren inherentea zen. Amaituko da! Amaitzen ari da! Amaitu da! Orain ez. Ez dio axola amaitzeak, nahi dudanean itzul bainaiteke». •

Nik han egon behar dut

Xabier Mikel ERREKONDO

Han ez da orain, ez gero, han urrun da, denboran urrun. Behar dut, ezinbestekoa da ni han egotea, hil ala bizikoa. Berdin du zer dagoen, baina nik han egon behar dut, erraldoia izango baita. Mundu guztiak joan nahi du, bada nik ere. Ez da nire estilokoa, baina ze axola. Oiartzun itzela eman diote eta han egon behar dut kontatu egin nahi dudalako han egon nintzela, harro. Musika kontzertu bat da, bueno, izango da hemendik urtebetera, eta irrikan emango dut denbora zain Instagram selfiez betetzeko gogoz. "Nik han egon behar dut" kulturaren aroa da.

Jaialdi munstroak modan daude, promozio zabala egin, sarrera guztiak ordubetean saldu eta bakarra izango zena bi, hiru edo lau ekitaldi izatera pasa. "Pomadan" egon nahiaren sukarra. Gainera, kontzertu handi horiek begi onez ikusiko ditugu, euskaraz kantatuko denez, harro eztarriak urratu arte, arnasgune erraldoia delakoan; milaka euskaltzale, kantitatea kalitateaz harago.

Zorionez bada beste kulturarik, ekitaldi franko nahi halako hizkuntzan, nahi halako moldean: musika, kantua, dantza, antzerkia, kirola... Baina selfien aroan horiek ez daukate masa-xarmarik, morboak agintzen du, nik "pomadan" egon nahi dut, eta Peio eta Pantxoaren kontzerturako sarrera urtebete aurretik hartuko dut, inoiz diskorik erosi ez badut ere, azken berrogeita hamazazpi urteotan inoiz abestirik entzun ez badut ere. Berdin Zetak nola ETS.

Asperduraren kultura da, jende oldea nora ni hara, bizitzaren plazerik gorena balitz bezala "ni hor egon naiz" kontatzea. Urtebete lehenagotik antsietatea autoprobokatzea, han eta hemen kontatzeko munduan besterik ez balego bezala, besteon belarriak urratzeraino...

Nik nahiago dut gauza txikiagotan arreta jarri. Saia zaitez, aparteko morbo eta plazerak deskubrituko dituzu. •

{ *euskal herria* ***digitala***}

Gorka JULIO EH Digitala ekimeneko kidea

Nola aurre egin teknofaxismoari

2026ko apirilaren 18an argitaratu zuen Alex Karpek, Palantirreko sortzaile eta zuzendariak "22 tesiak" izenez ezagutzen den manifestua. Manifestu hori, "The Technological Republic" liburuaren sintesi bat besterik ez da. Bertan baina, Estatuaren eta defentsa-softwarearen enpresen arteko integrazio erabatekoa proposatzen du. Argudiatzen du Silicon Valleyk zor moral bat duela bere gorakada ahalbidetu zuen herrialdearekin, eta bere ingeniari-eliteak nazioaren defentsan parte hartzeko betebeharra duela, elite hori bera kritikatuz "app hutsalak" eraikitzen aritu delako, Estatuarekin segurtasun nazionalean lankidetzan aritu beharrean.

Testuak enpresa teknologiko handien eta Pentagonoaren arteko fusioa eskatzen du, biak batera erabakiak har ditzaten lehen soilik gobernuarenak ziren gaietan, nahitaezko soldadutza eta berrarmatzea defendatzen ditu, eta disuasio nuklearraren ordez softwarean eta adimen artifizialean oinarritutako disuasio berri bat proposatzen du. Dokumentuak, inplizituki, kontrol demokratikoak saihesten dituen Estatuaren erreforma osoa egiteko borondatea du, eta horrek kritiko askok programa teknofaxista gisa argi eta garbi kalifikatzera eraman ditu.

Bigarren Mundu Gerraren erdian, 1944. urtean, Karl Polanyik "The Great Transformation" (Eraldaketa handia) idatzi zuen. Bere lanak jasotzen duen faxismoari buruzko diagnostikoa ez da arkeologia historiko hutsala, logika estruktural baten anatomia baizik: gerra arteko totalitarismoak ez ziren aberrazio irrazionalak izan, merkatu-kapitalismoaren krisiari emandako erantzun sistemikoak baizik.

Polanyirentzat, merkatu autorregulatua gizartetik erabat askatzen denean –ekonomiak giza harremanen mende egoteari uzten dionean–, horrek eragiten duen gizarte ehunaren suntsipenak babes-mugimendu bikoitz bat sortzen du ezinbestean. Kontua ez da mugimendu hori iristen den ala ez, baizik eta zer forma hartzen duen: demokratikoa edo autoritarioa. Polanyiren teoria eguneratzeak edo bere begirada erabiltzeak agian lagunduko digu Palantirren mugimenduak une honetan hobeto pentsatzen eta ulertzen; dena azkar mugitzen ari den honetan, balizko une teknofaxista bat errealitate bat izan daitekeelako, ez bada dagoeneko.

I. Palantir unea diagnostiko polanyiar gisa

Polanyirentzat, faxismoa «kapitalismo industrialaren hasieratik berezkoa zen birus antidemokratikoaren adierazpenik berriena eta bortitzena da», merkatu gizartearen erakundeek berekin baitakarte gobernu herritarraren edozein forma desegiteko beharra. Palantirren manifestua ez da beraz anomalia bat, birusa ikusgai egiten duen momentua baizik.

Gerra arteko analisian, Polanyik dinamika zehatz bat identifikatu zuen: demokratizazio politikoak merkatuaren eta politikaren arteko bereizketa mehatxatzen zuen, eta elite kapitalistek faxismoa aukeratu zuten, kapitalismoa demokrazia suntsituz babesteko neurri erradikal gisa. Gaur egun, logika hori arkitektura tekniko berri batekin agertzen da berriro. Peter Thiel, Palantirren sortzaileetako batek, argi eta garbi adierazi du kapitalismoa eta demokrazia liberala bateraezinak direla, eta Trumpen proiektuarekin duen aliantza ez da istripu bat, baizik eta helburu bakarra duten bi proiekturen arteko konbergentzia objektiboa: boterea oligarkia baten esku kontzentratzea, "gobernatzeko eskubide naturala" duela uste baitu.

Polanyik horri "irtenbide totalitarioa" deitu zion; gizartea botere kapitalista absolutuaren pean bateratzea, ekonomiaren eta demokraziaren arteko bereizketa zapalduaz. Hain zuzen ere, Palantirren manifestuak proposatzen duena, baina ingeniaritza, betebehar moral eta zibilizazio diskurtso batekin.

II. Determinismoa taktika ideologiko gisa

Polanyi bereziki argia izan zen determinismo ekonomikoaren funtzio ideologikoari buruz. Merkatu autorregulatua gertaera natural eta saihetsezin gisa aurkezten da, ez eraikuntza politiko gisa. Palantirren manifestuak eragiketa bera errepikatzen du, tonu militarista-teknologikoan.

Bere puntu nagusiek logika determinista itxi bat erabiltzen dute: «Ez da neutraltasun teknologikorik egongo», «galdera ez da ea adimen artifizaldun armak eraikiko diren», «demokraziek ezin dute diskurtso moralaren mende soilik egon». Ikuspegi horrek aukera politikoak gertaera natural saihetsezin bihurtzen ditu, eta sistemaren zalantza eztabaida legitimoaren eremutik ezabatzen du.

XX. mendeko 30eko hamarkadan ongizate-estatuaren suntsipena "lege ekonomiko" gisa aurkezten zuen mekanismo bera da. Alternatibarik ez dagoela konbentzitzen zaituztenean, bilatzeari uzten diozu. Erresistentziaren lehen ekintza, beraz, determinismo hori fikzio politiko gisa izendatzean datza, ez errealitatearen deskribapen gisa.

III. Mugimendu bikoitza eta bere egungo formak

Polanyiren kontzepturik indartsuena ekintzarako mugimendu bikoitza da: merkatu autorregulatuaren hedapenaren aurrean, gizarte-ehuna suntsitzen duena, gizarteak ezinbestean kontrako joera babeslea sortzen du. Baina babes horrek bi forma erabat desberdin har ditzake: faxista –kapitala demokrazia suntsituz babestea– edo sozialista –ekonomiaren demokratizazioa–.

Palantirren manifestua XXI. mendeko forma faxista da. Ez du 30eko hamarkadako masa-indarkeria uniformerik eskatzen –ez du behar–, baizik eta zerbait sofis-

tikatuagoa: zaintza masiboa, datuen analisia, adimen artifiziala, iritzi publikoaren manipulazioa eta disidentziaren errepresioa metodo sotil baina eraginkorren bidez.

Erantzun polanyiarra ez da erresistentzia hutsa. Mugimendu bikoitzaren forma demokratikoa sustatzean datza: teknologia gizartean berriz txertatzea, kontrol kolektiboaren mende jarriz, merkatuak eta makina militarrak haren gainetik jar ez daitezen.

IV. Lanari buruzko isiltasuna sintoma gisa

Palantirren manifestuak ez du hitz bakar bat ere esaten langileei, sindikatuei, antolatzeko eskubideari buruz. "Ingeniaritza-eliteaz", "betebehar moralaz" eta "kultura atzerakoiez" hitz egiten duen dokumentu batean, ez dago lekurik algoritmo horiek eraikitzen dituzten eta aldi berean horien zelatatzea pairatzen dutenentzat. Isiltasun hori ez da kasualitatea. Langileen eta beren eskubideen gaia inplizituki baztertzen dutela aitortzen dute horrela. Silicon Valleyko greba orokor bat proiektu honen amesgaiztoa litzateke.

Polanyirentzat, langile-mugimenduaren desartikulazioa izan zen –krisi-garaian bloke politiko kontrahegemoniko bat eraikitzeko ezintasuna– faxismoa irteera bakar gisa aurkeztea ahalbidetu zuena. Ikasgai bera aplikatu daiteke gaur egun: langileen sindikatuak, bereziki eremu teknologikoetan eragina dutenak, lanaren antolaketa kolektiboko beste modu batzuekin batera, konfrontazio-lerro garrantzitsuenetako bat dira.

V. Hierarkia zibilizatorioa nukleo ideologiko gisa

Polanyik identifikatu zuen faxismoak menderatze teknologikoaren forma elitista bat lortu nahi duela, estatu berdintzaileek lor ezin dezaketena, eta liberalismoaren XIX. mendean sortutako atomizazio eta dislokazio ekonomikoari irtenbide bakar gisa aurkeztuz. Palantirren manifestuaren 21. puntuak hau eguneratzen du zehazki: «Kultura batzuek aurrerapen erabakigarriak egin dituzte, eta, beste batzuek, berriz, disfuntzionalak eta atzerakoiak izaten jarraitzen dute». Esaldi hori arrazismo kolonialaren oinarri teorikoa da, «zibilizazioaren kudeaketa arrazionalaren» estalkipean menderatzea justifikatzen duena –"gizon zuriaren zama" delakoaren logika bera, orain algoritmoen eta *big data*-ren hizkuntzan erreproduzitua–.

Hori esplizituki izendatzea, arrazismo kolonial digitalizatua bezala identifikatuz, beharrezko ekintza politikoa da, oraindik ere zalantzak dituztenen aurrean deslegitimatzeko.

Polanyiri esker dakigu faxismoa ez datorrela politikaren gehiegikeriatik, baizik eta politikaren hustuketatik: ekonomia jendartetik erabat askatzen denean, faxismoa berrantolaketa bortitz gisarako tresna bezala agertzen da. Palantirren manifestuan diotena antzeko helburuarekin dago egina. Horren aurrean, erantzunak ezin du kritika intelektuala bakarrik izan –beharrezkoa baina ez nahikoa–, baizik eta komunitate politikoari kontrol teknologikoa itzuliko dioten erakundeen eraikuntza, pazientzia estrategikoarekin.

Ilustrazioa: YERAY GASCON

ZER EGIN?

1. Eztabaida publikoaren birkokapena

Manifestua tekniko-estrategiko gisa aurkezten da. Den bezala izendatu behar da: burujabetza teknologikoa behin betiko ezabatu nahi duen klase-programa politiko bat. Polanyik galdera hauek egingo lituzke: nork erabakitzen du? Noren mesedetan? Zer gainbegiratzerekin? Ez dira galdera teknikoak.

2. Teknologia burujabetzaren koordinazioa

Eremu teknopolitikoko sareak eta software libreko proiektuen eta erakunde kooperatiboen konstelazioak mugimendu demokratikoaren formak dira. Horrela artikulatu behar dira: ez soilik merkatuaren alternatiba gisa, baizik eta azpiegitura teknologikoaren gaineko kontrol sozialeko erakunde gisa. Egituratze horiek, eremu publikotik laguntza erabakigarri eta planifikatuarekin batera, aurrera egiteko eta oligarkia horiek atzera egiteko modua lirateke.

3. Langileen interesen defentsa sektore teknologikoan

Langile teknologikoen antolaketa babestea estrategikoki zentrala da. AEBko No Tech for ICE mugimendua, edo Google, Amazon, Meta bezalako konpainietako langileen antzeko ekimenak adibide ona dira; Polanyik funtsezko palanka gisa ikusten zuenaren baliokide garaikideak dira. McKenzie Warkek definitzen duen hacker klasea, klase bektorialistaren aurka antolatzea da zereginik garrantzitsuena. Imajina al dezakegu teknologiaren, informazioaren, datuen kudeaketaren, komunikazioaren eta administrazio telematikoaren arloetako langileen greba orokor bat?

4. Kontratu publikoen haustura

Gobernuaren kontratu bakoitza hiltzeko eta deportatzeko makinaren finantzaketa-iturri zuzena da. Finantza-fluxu hori gelditzea da konfrontazioaren lehen lerroa. Horrek administrazioei presio zuzena egitea dakar, heriotzaren oligopolio horretako enpresekin dituzten kontratuak berrikus ditzaten eta kontratazio publikoak lehenets dezan eremu publikoko edo langileen eta herritarren kontrol demokratikoaren pean dagoen azpiegitura subiranoa.

5. Askatasuna, erantzukizun kolektibo gisa

Polanyirentzat, faxismoa, dimentsio soziologikoan, sozialismorako edozein joera ezabatzeko gizartearen egitura eraldatzeko ahalegin bat da, eta bere filosofiaren eta soziologiaren arteko lotura pragmatikoa demokraziaren erakundeen suntsipenean dago. Erantzuna, orduan, ezin da defentsiboa soilik izan. Argi eta garbi zehaztu behar da zer-nolako erakunde demokratikoak eraiki nahi ditugun kontrol teknologikorako: gainbegiratze algoritmiko herritarra, datu-azpiegituraren jabetza kolektiboa, gobernantza parte-hartzaileko ereduak eta beste.

Luixa REIZABAL ARRUABARRENA
«Ekin eta eraldaketa eragin» gidaliburuaren koordinatzailea

Hezkuntza eraldatu, jendartea eraldatzeko

GUNETUZ
PSIKOLOGO EUSKALDUNEN SAREA
www.gunetuz.ueu.eus

Azken hamarkadetan aurrerapauso nabarmenak egin diren arren, hezkuntzan genero-parekidetasuna sustatzeko erronkak oraindik ere agerian daude. Lege-markoek, hezkidetza-planek eta ekimen instituzionalek norabide argia ezarri dute, baina ahalegin horiek ez dira nahikoak izan desberdintasunak desagerrarazteko. Hala, eguneroko praktiketan oraindik agerikoa da genero-desberdintasunek eta zapalkuntza-egiturek bizirik dirautela, sarritan modu sotilean eta ikusezinean erreproduzituz.

Testuinguru horretan sortu eta kokatzen da "Ekin eta eraldaketa eragin. Pedagogia feministen teoria eta praxia" gidaliburua. Euskal Herriko testuingurutik abiatuta, bertako hezkuntza-sistemetan egindako aurrerapausoak zein konpondu gabeko erronkak aztertzen ditu. Aldi berean, pedagogia feministak ikuspegi intersekzionaletik lantzen dira bertan, generoaz gain beste zapalkuntza-ardatz batzuk –hala nola arrazakeria, klasismoa, kapazitismoa edota aniztasun sexu-generikoaren aurkako jarrerak eta zapalkuntzak– kontuan hartuz. Desberdintasunak ez dira ardatz bakar baten ondorio, egitura anitzek elkar gurutzatzean sortutakoak baizik, eta horrek egoera askotarikoagoa eta konplexuagoa bihurtzen du.

Hiru atal nagusitan egituratuta, gidaliburuak dimentsio teorikoa eta praktikoa uztartzen ditu: alde batetik, pedagogia feministen oinarri kontzeptualak eta genealogia lantzen dira; bestetik, hezkidetzari dagokionez, Euskal Herriko testuinguru juridiko eta politikoa aztertzen da. Horrez gain, esku-hartzerako tresna zehatzak ere eskaintzen ditu; diagnostikotik abiatuta, hezkuntza formal zein ez-formalean aplikagarriak diren baliabideak proposatzen ditu. Helburua ez da errealitatea deskribatzea bakarrik, eraldaketarako bideak aktibatu eta praktikara eramatea baizik.

«Ekin eta eraldaketa eragin» gidaliburuaren azala. GAUR8

Lan honen atzean ez dago ahots bakar bat. Aitzitik, ikuspegi anitzen arteko elkarrizketatik sortutako proposamena da. Horrez gain, hainbat eragilek egindako ekarpenak bildu eta aitortzen ditu, ezagutza kolektiboaren balioa azpimarratuz. Ekarpen desberdinen uztarketak aberastu egiten du emaitza, eta, aldi berean, haren izaera kokatua azpimarratzen du: planteamenduak ez dira unibertsalak, baizik eta testuinguru jakinetan errotuak, eta horietara egokitu beharrekoak.

Hezkuntza eraldatzaile batek ezin duenez inor kanpoan utzi, inklusioa eta irisgarritasuna lanaren ardatz nagusitzat hartuta, proposatutako baliabideek parte-hartzea erraztea eta oztopoak murriztea dute helburu.

Hezkuntza-arloko profesionalei, unibertsitateko ikasleei eta komunitate-eragileei zuzenduta, hausnarketa kritikoa sustatzeko eta praktika pedagogiko eraldatzaileak bultzatzeko tresna izateko idatzi da gidaliburua.

Argitalpena EHUko Psikologia Fakultatearen babesarekin kaleratu da, eta doan eskuratu daiteke GuNETuz webgunean, parekidetasunari dagokion atalean, "esku-hartzea" azpi-atalean. Ezagutza eskuragarri egin eta partekatzea da helburua, pedagogia feministak hezkuntza-komunitate zabalera irits daitezen.

Laburbilduz, "Ekin eta eraldaketa eragin" ez da gidaliburu hutsa. Hezkuntza beste modu batean ulertzeko eta praktikatzeko gonbidapena da, eta, aldi berean, aldaketa sozialerako tresna kolektiboa. Hezkuntzak jendartea eraldatzeko ahalmena badu, ezinbestekoa da gure praktikak eta ikuspegiak berrikustea. Bide horretan, pedagogia feministak aliatu sendoak dira, eguneroko hezkuntza-praktiketan desberdintasunak identifikatu, zalantzan jarri eta horiei aurre egiteko tresnak eskainiz. Azken batean, eraldaketa ez da diskurtsoan bakarrik gertatzen: praktikan gauzatzen da. •

{ koadernoa } **Mijo LIZARZABURU**

Etorkizunaren monopolioa

Berlineko harresia 1989an bota zuten, bi urte beranduago Sobietar Batasuna desegin egin zen, eta kapitalismo estatubatuarra munduaren jaun eta jabe bihurtu zen. Globalizazioak Estatua ulertzeko eta praktikatzeko modua eraldatu zuen. Estatuak boterea eta instituzioak mantentzen ditu, baina horiek beste agente boteretsuago batzuen menpe agertzen dira, merkatu kapitalistaren menpe. Menpekotasun hori beharrezkoa da globalizazioaren jokoan sartzeko, eta joko horretan egotea beharrezkoa da XXI. mendeko herrialde garatu bat izateko. Hortik kanpo, blokeoa eta miseria dago.

Kubak, iraultzaren ondoren, kapitalismo estatubatuarraren alternatiba sozialistaren papera hartu zuen, baina Sobietar Batasuna desegin zenean, bere aliatu nagusia galdu zuen, laguntza ekonomikoa, petrolioa, merkataritza-harremanak eta babes geopolitikoa ematen zizkiona. Horren ondorioz, Kubak "Garai Berezia" deituriko krisi ekonomiko latza bizi izan zuen 1990eko hamarkadan. Kuba Gerra Hotzaren ondorengo mundu kapitalista globalizatuan sistematik kanpo geratu zen herrialdeen adibide gorena da, bakardade geopolitikoaren, 70 urteko blokeo ekonomikoaren eta horrek sortutako krisi sozial sakonaren erdian erresistentzian jarraitzen duena.

Ameriketako Estatu Batuek haien hegemonia globalaren gainbeheraren aurrean potentzia europarren aurka aplikatutako Monroe doktrina berpiztu dute, haien logika hurrengoa da: ezin badugu mundu osoa kontrolatu, behintzat Mendebaldeko hemisferioa dagokigu. Zentzu horretan ulertu behar dira 2026ko urtarrileko Maduro presidentearen eta Cilia Floresen bahiketak; ez dira soilik Venezuelaren subiranotasunaren aurkako erasoak, Kubaren babes-sareari emandako kolpea eta Latinoamerika osoko ezkerreko proiektuen aurkako mehatxua ere badira.

Venezuelak eta Kubak urte luzez aliantza estrategikoa izan dute, non beste gauza askoren artean petrolioa partekatzen zuten. Venezuelako kolpearen ostean Trumpek neurri gogorragoak hartu ditu Kubaren aurka, petrolioaren eta energiaren enpresa estrategikoei zigorrak areagotuz, horrek ekarritako erregai eta energia faltak herritarrak oraindik gogorrago itotzen dituelarik. Enbargo zuzenaz gain Ameriketako Estatu Batuek presioa egiten diete beste herrialde, banku eta enpresei Kubarekin harremanik izan ez dezaten. Maiatzaren 1ean sinatutako neurri berriek ere bide horretan sakontzen dute. Ameriketako Estatu Batuen helburua beti izan da blokeoak sortutako arazoak sozialismoaren porrot gisa erakustea, Castrotarren diktadura krudelagatik ez balitz Kuba Miami izango zela sinetsaraztea, denok dakigunean sozialismoagatik ez balitz Haiti izango zela.

Blokeo kriminalaren erradikalizazioaren bidez eta Raul Castroren aurkako zentzugabeko akusazioen bidez Ameriketako Estatu Batuen eta Kubaren arteko tentsio diplomatikoa igotzen ari den honetan, Kubari arreta handiz begiratu behar diogu; Kuba Donald Trump eta Marco Rubiorentzat haien pareta koloniala apaintzeko balio duen ehiza-trofeo preziatua da, Irango erridikuluaren ostean partiduan jarraitzeko beharrezko duten tantoa. Guretzat, munduko ezkerrarentzat, askoz gehiago da: Kuba (bereziki Sobietar Batasunaren erorketaren ostean), ez da Ameriketako Estatu Batuei eraso egiteko moduko potentzia bat, baina bada kapitalismoa baino aukera gehiago daudela eta erresistentzia posible dela gogorarazten digun herria. Kuba ez da ezkerraren iraganeko postal bat, oraindik bizirik dagoen proiektu politiko bat da eta hura defendatzea ez da nostalgia: burujabetza, duintasuna eta sozialismoaren etorkizuna defendatzea baizik. •

> Donald Trump eta Marco Rubiorentzat haien pareta koloniala apaintzeko balio duen ehiza-trofeo preziatua da Kuba, Irango erridikuluaren ostean partiduan jarraitzeko beharrezko duten tantoa. Munduko ezkerrarentzat, askoz gehiago da

{ Adimen artifiziala eta gizatasuna III } **Mikel URDANGARIN IRASTORZA**

Ziborgak lurraren biziraupenerako!

Gure aroan denok kimerak gara, makina eta organismoaren arteko hibridoak; hitz lauz, ziborgak gara». Ez, ez da 2026an idatzitako testu bat, ezta saiakera edo serie distopiko baterako sarrera ere. Donna Haraway (Colorado, 1944) biologo, historialari eta filosofo estatubatuarrak 1985ean idatzitako "Ziborg manifestua" lanean planteatutako tesia da, feminismo sozialista baterako oinarri bezala formulatua.

«Ziborgak lurraren biziraupenerako!», aldarrikatzen zuen, politika eta utopiak hortik birpentsatzeko gonbita eginez. Alabaina, zer zerikusi dute ziborgek, feminismoak eta lurraren biziraupenak? Ziborga nolatan izan daiteke promesa bat, mehatxua beharrean? Lau hamarkada ondoren, are ziborgagoak bilakatzen ari garenean, interesgarria da manifestua berrirakurtzea.

Mugen lausotzea

1985, AEB. Gerra Hotza bero zegoen, Ronald Reagan presidenteak "Galaxien Gerra" delako defentsa estrategia planteatu zuen... Testuinguru horretan, iraultza teknologiko sakona gauzatzen ari zen, informazioaren aroari ateak parez pare irekiz: ordenagailuak etxe eta bulegoetara heltzen hasi ziren (sagua orduantxe asmatu zen); ofizialki Internet sortu zen; walkmana eta VHS bideo sistema bezalako gailuak zabaldu ziren; bideojokoaren industria izugarri hedatu zen... Lehen telefono mugikorra ere orduantxe saldu zen, 3.995 dolarreko prezioan –arrazoiz, "adreilua" deitzen zioten, 33 zentimetroko luzera baitzuen–.

> Tekno-oligarkak manifestu makurrak kaleratu eta kaleratu ari dira azken boladan. Donna Harawayk ere idatzi zuen bat, «Ziborg manifestua», baina oso bestelako mundua marrazten du.

Duela mende bateko kontuak direla badirudi ere, orain dela lau hamarkada eskaseko sorkuntzak dira. Eta garaian ez ziren nolanahikoak izan, horrek herritarren egunerokoan inpaktu zuzena izan baitzuen: orain ohituta bagaude ere, pentsa zer izan zen walkman bidez musika era pertsonalizatuan entzun ahal izatea. Edo agente aktibo bihurtuz, VHS bideo sistema erabilita norberak nahieran grabatzea.

Harawayren ustez, Mendebaldeko pentsamenduan ere eragin nabarmena izan zuen horrek, luzaz tinko iraundako dualismoak urtu baitziren: natura-kultura, gizakia-animalia, gizona-emakumea... Tartean, jakina, gizakiaren eta teknologien artekoa. Ordura arteko iruditeriaren arabera, «makinek ez zuten berez mugimendurik, ez zuten erabakitzen, ez ziren autonomoak. Ezin zuten giza ametsa lortu, soilik imitatu egin zezaketen. Orain jada ez gaude hain ziur. Mende amaiera honetako makinek anbiguo bihurtu dituzte organismoei eta makinei aplikatu ohi zitzaizkien hainbat bereizketa: naturalaren eta artifizialaren artekoa, gorputzaren eta adimenaren artekoa, garapen pertsonalaren eta kanpokoaren artekoa, eta beste hainbat».

Horren lekuko, Harawayrentzat, makina berriek mundu fisikoaren eta ez-fisikoaren arteko muga ere lausotu dute. Adibidez, «konpara ditzagun 1950eko hamarkadako telebista-aparatuak edo 1970eko hamarkadako argazki-kamerak eskumuturrari erloju baten moduan lotzen zaizkion telebista-pantailekin edo egungo bideokamerekin. Gure makinarik onenak eguzki-izpiz eginak daude, arinak eta garbiak dira, eta batez ere eramangarriak eta mugikorrak dira; seinaleak edo uhin elektromagnetikoak baizik ez dira». Mikrotxipekin ikusten den bezala, makinak jada ez dira aparatu astun eta ikusgarriak: «Leku guztietan daude, baina ikusezinak dira». Aldiz, «jendea, aldi berean materiala eta opakoa, ez da inondik ere hain mugikorra».

Ziborg hibridoak

Iraultza azkar horren aurrean, zer egin? Galga sakatu eta nahaste-borrastearen aurreko muga argiak berreskuratzea izan daiteke estrategietako bat; makinen aurrean gizakien berezitasunei kosta ahala kosta eustea. Ulergarria da. Haraway, baina, ez dator bat, makinak gure parte bilakatu baitira: «Makinak artefaktu protesikoak izan daitezke, osagai intimoak, gure zati lagunkoiak». Adibidez, zenbait kasutan horiei esker entzun,

ibili, usaindu edota dastatzen da; are, horren erritmora funtzionatzen dute hamaika bihotzek. Hortaz, «gure gorputzek zergatik amaitu beharko lukete gure larruazalean?», galdetzen du. Zientzialariarentzat, «ez dugu osotasun zeharkaezin bat bihurtuko gaituen holismo organikorik behar, emakume totalik», ezta makina horien aurrean kustodiatu behar den gizaki puru, oso eta harmoniatsurik ere, jada ezin direlako bata eta bestea bereizi.

Hori kontuan izanik, jendarte teknologikoetan hobeto borrokatzeko, organismo eta makinen arteko hibridazio «teknopolitikoak» bilatzeko gonbita egiten du Harawayk. Ziborga, hain zuzen, horiek pentsatzeko metafora ironiko eta probokatzailea da: «Organismo zibernetiko bat da, makinaren eta organismoaren arteko hibrido bat, errealitate sozialeko eta fikziozko izaki bat», mugetan bizi dena eta «fusio ilegitimo eta arriskutsuak» egiten dituena. Dualismoaren alde batean edo bestean kokatu beharrean, koordenatuak beraiek birpentsatzen ditu, «horien aginte eta kontrola iraultzeko».

Haur bastartak

Harawayren iritziz, fusioen ondorioa denez, ziborgaren jatorria ez dago argi: «Edengo Lorategia [Jainkoak Adam eta Evarentzat antolatutako paradisua] ez luke ezagutuko, ez dago lokatzez egina eta ezin du berriro hauts bihurtu». Hasiera-hasieratik kutsatuta dago, eta, ondorioz, ez du nora itzuli.

Genesirik ez badu ere, ez da hutsetik abiatzen. Teknologia nola, ziborgak ere «ez dira inozoak», botere-egitura jakin batzuen ordaina baizik: «Haien arazo nagusia da militarismoaren eta kapitalismo patriarkalaren haur ez-legitimoak direla, estatu-sozialismoa ez aipatzearren». Adibidez, AEBk Gerra Hotzerako garatutako proiektu militar batetik sortu zen Internet. Alabaina, kontuz, «bastartak, askotan, beren jatorriarekiko desleialak dira. Gurasoak, azken finean, ez dira esentzialak», eta maiz ez dute haien tutoretza onartzen.

Horretan datza tentsio nagusia: ziborgak boterearen haurrak dira, baina ez dute zertan horren jarraipena izan, irekita daude. Anbiguotasun horretan, «ikuspegi batetik, ziborgen mundu bat kontrol-sistema planetario baten ezarpena da, defentsa nazionalaren izenean hasitako 'Galaxien Gerra' apokaliptiko baten azkena. Beste ikuspegi batetik, horrelako mundu batek bestelako errealitate sozial eta korporalak ere adieraz ditzake, non jendeak ez dion belduerrik animaliekin eta makinekin dituen ahaidetasunei, identitate partzialei eta ikuspuntu kontraesankorrei».

Beraz, non jarri fokua? Harawayrentzat, «borroka politikoa bi ikuspegietatik aldi berean ikustean datza». Batetik, jatorritik kutsatuta gauden neurrian, ezin da teknologien aurreko Edengo Lorategira itzuli; hor murgildu eta lehiatu behar da nahitaez. Bestetik, baina, horrek ez du esan nahi logika horrekiko otzanak eta akritikoak izan behar dugunik. Haur bastartek egin bezala, sistemak eskainitako ahalmen eta ezagutzak sistemaren kontra egiteko baliatu behar dira, tresnak gurasoen asmoen aurka erabili.

Hori azaltzeko, arrabioaren metafora iradokitzen du: «Arrabioek, galdutako gor-

Artikulu segidarako Shu Oterok egindako hirugarren ilustrazioa.
SHU OTERO

putz-adar bat erregeneratzeko, egitura berriz haztea eta funtzioa berrezartzea behar dute, zauriaren lekuan ekoizpen bikiak edo bestelako bitxikeriak sortzeko aukera etengabearekin. Berriz haziteko zatia munstroa izan daiteke, bikoiztua, ahaltsua». Denok zaurituak izan garela kontuan izanik, Harawayk, hain zuzen, bide hori proposatzen du: zaurietatik bestelako gizaki eta gizarte eredua erregeneratu, aurreikusi gabeko munduei bide emanez: «Generorik, genesirik eta, agian, amaierarik gabeko mundua».

Eta AAz?

Lau hamarkada ez dira alferrik pasa. Harawayk berak ziborgaren inguruan gogoeta kritikoa egin izan du gerora: «Nire ustez, figura borrokalari gisa, ziborgak bizitza laburra izan du [barreak]. Pertsonen gehiengoarentzat, ziborgaren figurazioak ez dira sekula borrokalariak, askatzaileak edo kritikoak izan». Interneti lotutako itxaropenak ere apaldu dira. Dena den, Harawayk ez dio metaforari uko egin.

Alde horretatik, manifestua berrirakurtzean, etengabe galdera bera etortzen zitzaidan gogora: ziborgaren begiradatik nola irakurtzen ote du adimen artifiziala (AA)? Bila eta bila aritu gara –Harawayri ere galdetu diogu postaz–, baina ez dugu horri buruzko elkarrizketa edo artikulurik topatu. Halere, bere esaldi bat bai: «AA praktika materialista erreala da, eta oso gauza interesgarriak egiten ditu, beharbada praktika artistikoetan, lanpraktiketan edo, agian, hainbat nekazaritza-praktikatan integratu daitezkeenak. Ez nago AAren praktika eta trebetasun materialisten aurka, baina bai erabateko adimen artifizial edo robotizazioaren eskutik lurretik alde egin nahi duen nozio inozo horren kontra. Hori gizon zurien masturbazio falikoa da».

Bada pista bat. Hortik abiatuta, manifestuko hiru gogoeta gaur egunera ekartzera ausartuko gara. Batetik, mende hasierako makinekin gizakiaren eta teknologiaren arteko balizko muga hori are gehiago pitzatu da. Harawayk 1985ean aipatutako pantaila eta bideokamerak egungo mugikor estandar batekin konparatu besterik ez dago. Gizakion organo bat bilakatu balira bezala, egungoak are leku gehiagotan daude, eta askoz azkarrago mugitzen dira. Pentsa, AA generatiboak beraien kabuz sortu, grabatu, erabaki eta hiltzeko gai dira! Lekutan geratu dira VHS bideo sistema eta walkmanak.

Claire Lomas, 2012ko Londreseko maratoian arropa bionikoarekin parte hartzen.
Danny MARTINDALE | WIREIMAGE

Bestetik, AAren sorrera eta garapena ere ez da inozoa. Ibai Azparrenek eta Cecilia Rikapek berriki azaldu dutenez, kapitalismo digitalari, militarismoari, patriarkatuari eta kolonialismoari hertsiki lotuta dago. Horren baitan ulertzen dira gizakia «supergizaki teknologikoa» bilakatu nahi duten fantasia transhumanistak, bai eta tekno-oligarkak egiten ari diren inbertsio erraldoiak ere. Aipuan irakur daitekeenez, halakoen guztiz kontra agertzen da Haraway.

Dena den, teknologia guztiak nola, AA ere anbiguotasunak zeharkatzen du: milioika gizakiren datu eta lanari esker funtzionatzen du, eta ibilian-ibilian bestelako aukerak ere marrazten ari dira. Alde horretatik, Harawayren markotik abiatuta, kontua ez da adimen naturalaren eta artifizialaren arteko horma etengabe zedarritzea, baizik eta mugetan bizitzen ikastea, fusio konplexu eta emantzipatzaileak egiten ahaleginduz: nola bihurtu AAren haur bastartak? AA generatiboa nola erregeneratu bestela? Iragarpen apokaliptikoen kontra, mundua –eta partida– ez dago amaituta.

Ziborgak eta modernoak

Jule GOIKOETXEA MENTXAKA

Testuinguru honetan, kristau kreazionismoaren irakaskuntza adingabeen ustelkeria-modutzat hartu beharko litzateke
(Haraway, «Ziborg manifestua», 1985)

Gorka RUBIO | FOKU

Eta, beraz, adingabeen eta nerabeen ustelkeria-modutzat hartu beharko lirateke eskoletan eta unibertsitatean ematen diren irakasgaien hiru laurden, kreazionismo laikoan oinarritutakoak baitira, gizatasuna versus teknologia dikotomian eta natura versus kultura zatiketan sustraituak.

Egungo ekonomia globala aurretiaz bereizita zeuden teknologia adarren konbergentzian oinarritzen da. Braidottik primeran azaltzen du nanoteknologia, bioteknologia, informazioaren teknologia eta zientzia kognitiboen arteko lotura berri hauek animalien, gizakien, hazien, zelulen eta landareen ikerketa eta eskuhartzea eskatzen dutela. Hau da, kapitalaren balioa, gaur egun, materia biziari buruzko informazio-ahalmena da, datu biogenetiko, neuronal eta mediatikoen bankuetara eramaten dena izaki oro energia-baliabide eta bizi soberakina, edo gainbalio, bilakatuz.

Materia biziaren kapitalizazioak bioekonomia politiko berria sortzen du, eta horri aurre egiteko ezagutza eta paradigma zientifiko berrituak behar dira. Paradigma berriek, aldi berean, fisika, biologia eta soziologiaren arteko mugak hankaz gora jarri dituzte eta halaxe agertzen da eszenatokian gure ziborg maitea, modernoek gorrotatzen duten organismo zibernetiko hibridoa. Ez, ez da ilustratuak eta kristau kreazionistak elkartzean ateratzen den kaka nahastea bezain sofistikatua, baina nahaspila da, azken finean.

Fikziozko errealitate soziala da ziborga. Modernoek ezin dute ukitu, ezin dute ulertu, modernoentzako fikzioa eta errealitatea dikotomia bat delako. Horregatik daramate laurehun urte "merkantzia" ulertu gabe. Merkantzia zure errealitate guztia baldintzatzen duen fikzio erreal bat baita. Gizonak eta emakumeak bezalaxe. Baina modernoek ezin dute generorik gabeko mundua ikusi, usaindu, ukitu, eta «Ziborga mundu post generiko bateko izakia da», dio Harawayk bere "Ziborg manifestua" saiakera ospetsuan. «Ziborgak ez du harremanik bisexualitatearekin, ez sinbiosi preedipikoarekin, ez alienatu gabeko lanarekin edo osotasun organikoaren berezko beste sedukzio batzuekin», eta, jakina, ez da inoiz totalitate edo osotasun batean amaitzen. Ez baitator batasunetik. Ziborga ez da natura izaera atzean utzi eta kultura bilakatu zen gizaki adimentsu hori, zeinak kultura erabili nahi izango duen natura menderatzeko. Ziborgak ez ditu gurasoak, ezta seme-alabak ere, ez da inoren ama, inoren ondorengo. Ziborg artean bizi dira modernoak, baina ezin dituzte ukitu, ezin dituzte ulertu. Heresiak ez dira ulergarriak fededunentzat, Inkisizioak eta egungo supremazista jatorrek ez dute "bestea", "munstroa", "ziborga" ulertu behar, hura zigortu eta akabatu besterik ez dute xede. Jainkoaren kontra ari baikara, nola izango dira ba gizon eta emakumeak fikzio zibernetiko bat? Nola izango da merkantzia fikzioa? Nola izango da ba nazioa fikzio bat? Hortxe dago Espainia. Ikusi, entzun eta ukitu daiteke. Eta torturatu badezake, nola ez da ba existituko?

Eta nork esan du existitzen ez direnik merkantzia, nazioa, emakumeak eta gizonak, dirua eta Estatua? Inork. Zergatik kaka nahaste hau existentziaren eta fikzioaren artean?

Fededun modernoentzat errealitatea Jainkoak, barkatu, naturak, sortutako hori da. Baina nork sortu zuen natura? Nork sortu zuen Jainkoa? Nork sortu zuen Estatua? Fededunek. Fededunek sortzen dutena egia da, gainontzekoa gezurra. Baino faxistek ez dute egia ondo eramaten. Horregatik genozidioak, erailketak, gerrak. Ezin dute errealitatea pairatu. Horregatik akabatu nahi dituzte ziborgak, espezie anitzeko eta arimarik gabeko gure gorputzak. Baina gu ez gara zerura joango, ezta infernura ere, hemen geratuko gara betiko, fededunak baltsamatzen, teknologiatik salbatu nahi zuten gizatasuna gure titi artean ardo gisa zurrupatzen.

Zeren eta jakin badakigu teknologiak, deabruaren artifizio horrek, sortu zuela zibilizazioa eta zibilizazioak sortu zuela gizatasuna. Erailketa masiboak medio. Baina ziborga ez da artifizio adimentsua. Adimen artifiziala ergelek asmatutako tramankulua baita. Horregatik dira teknofaxistak adimen artifizialaren jabeak, adimen naturala balute ez lirateke faxistak izango. Edo bai? Ez dakigu, artifiziala versus naturala ez baita ziborgen markoa. Gu fikzio naturalak gara. •

«Turismoaren auzia zure oporretan jokatzen dela pentsatzea norbere zilborrera gehiegi begiratzea da»

ASIER BASURTO

«TURISMOA. DESAZKUNDERA BIDAIA» LIBURUAREN EGILEA

Turismo jarduerari mugarik jarri ezean, konponbidea urrun dagoela deritzo Basurtok. Desazkundea bultzatzeko beharra defendatu du herritarron onura bilatzeko estrategia moduan.

Garazi CASTAÑO

Adituak bezain beste du esateko arituak. Asier Basurto (Donostia, 1985) desazkunde turistikoaren aldeko Bizilagunekin plataformako kidea da. Argiaren eskutik kaleratu du "Turismoa. Desazkundera bidaia". Asmoa, turismoaren inguruko oinarrizko eztabaidak identifikatu eta euskarazko oinarrizko eskuliburu bat idaztea.

Terminologia argitzeko saiakera berezia egiten da liburuan. Zergatik?

Guk beti arazoa nagusiki "turistifikazioan" zentratzen dugu. Hitz horrekin definitzen dugu, batez ere Donostian hala egin dugu. Baina hedabideetan "turismo masibo" deitu izan zaio, "gainturismo" kontzeptua ere oso erabilia da nazioartean, "gentrifikazioa" hor tartean sartzen da... Denek ez dute gauza bera esan nahi eta garrantzitsua da horiek argitzea. Batez ere batzuetan intentzionalitatez egiten direlako nahaste horiek. Adibide garbia da turismo masiboaz hitz egiten denean. Jende pilaketa handiaz ari gara, baina batzuetan arazoa egon daiteke hainbeste jende ez dagoen tokietan ere. "Turistifikazio" diogunean, ordea, dioguna da turismoak baldintzatzen duela leku horretako eredu ekonomikoa, gizarte eredua, kultura eredua, hirigintza eredua, eta, beraz, nahiz eta jende gutxiago egon, baldintzatzen duela.

Gure hirietan esaterako, batzuetan turistak alde zaharrean edo erdialdean egoten dira, zona komertzialetan edo ondarea dagoen inguruetan. Baina kanpoaldeko auzoetan, turistak ikusi ez arren, turistifikazioaren ondorioak berdinberdin iristen dira. Masifikazioaren tranpa hor dago.

Nazio ikuspegitik ere desberdina izan al da turismoaren garapena tokian toki?

Liburuaren hiru kapituluetan zehar turismoaren historia errepasatzen dut pixka bat, eta, tartean, baita Euskal Herrikoa ere. Donostia eta Biarritzen, adibidez, eliteko turismo joera bat egon zen XIX. mendetik abiatuta, eta horrek bere garapena izan zuen Donostialdean eta baita Lapurdiko kostaldean ere. Gaur egun, ordea, turismo eredu desberdinak ezagutzen ditugu eta horietako bakoitzak ondorio desberdinak ditu. Naturarekin lotutako turismoa, hirietakoa, gastronomiarekin lotutakoa... Horiek garapen desberdina izan dute hamarkada hauetan zehar.

Neurri batean ere, azaltzen saiatu naiz Frantziako Estatuak eta Espainiako Estatuak, Estatu bezala, zein turismo politika eta marko erabili izan dituzten. Gure herrian horien ondorioak ere ikusi baititugu. Ipar Euskal Herria turismora zuzendutako lurralde bezala planifikatua izan zen 70eko hamarkadako hasieratik aurrera. Hori ere salatua eta borrokatua izan zen. Espainiar Estatuan berriz, hondartza turismoa erabili izan zen batez ere, Mediterraneo aldean pilatutako turismo eredua, alegia. Diktadura garaian nazioartean zilegitasuna bilatu nahian bultzatu zuten. Garaian horrek ez zigun hainbeste eragin Hego Euskal Herrian. Donostia hiri turistiko gisa mantentzen zen, baina hemen bazegoen beste gatazka politiko bat turismo industriako eragileak uxatzen zituenak. Gauzak aldatzen joan dira eta orain beste puntu batean gaude.

Eta orain, globalizazioaren ondorioz, turistifikatzeko estrategiak berdintzen ari al dira?

Hainbat elementu hartu behar dira kontuan. Alde batetik, digitalizazioak sekulako eragina izan du turismoak gaur egungo forma hartzeko orduan. Garai batean turismoa bidaia agentzien bidez eta antzekoen bitartez egiten zen. Gaur egun, hori bakarrik aipatzeak martzianada bat dirudi.

Azken urte hauetan, edozein herritarrek bere ordenagailutik aukeratzen du eta erreserbatzen du garraiobidea, baita ostatua ere. Eta nora joan erabakitzeko ere, Chat GPTri galdetzen zaio aukeren inguruan. Eta ez hori bakarrik. Bitartean, egunero eta egunero sare sozialen kontsumoan ohituta dagoen pertsona oro ari da esperientzia pertsonal forma duten iragarkiak jasotzen. Behin eta berriz. Eta horrek oso gauza xelebreak eragiten ditu. Biralitatearen fenomenoa turismoan oso-oso indartsua da. Oso denbora gutxian jarri daiteke modan ez dakit zer menditan ez dakit zeren forma duen harri batekin argazkiak ateratzera joatea. Eta horren ondorioz, oso denbora gutxian milaka pertsona has daitezke mendi horretara joaten. Edo Donostiara etortzen gazta tarta bat jatera. Bai, donostiar askok probatu ez duten gazta tarta hori, antza denez, gure gastronomiaren

Argazkiak: Andoni CANELLADA | FOKU

erakusgarri handienetako bat da munduan.... Beste adibide bitxi bat da.

Desazkundea defendatzen duzue. Erreakzio batetik abiatzen den proposamena da?
Erreakzio bat da, bai, baina nagusiki beste eredu bat sortzeko deia da. Gaur egungo eredua goitik behera aldatzeko dei bat. Desazkundeak defendatzen duena oso argia da: modu justuago batean bizi gaitezen, turismoak gaur egun gure gizartean duen zentralitatea eta duen pisua gutxitu egin behar dira. Zertarako? Gaur egungo ereduak sortzen dituen kalteak pairatu ez ditzagun. Gauza konplexua da, erronka handia, baina horrek ez du esan nahi ez denik egingarria.

Gerta liteke norbanakoari lotutako neurriak bururatzea. Tranparik al dago hor?
Badago tranpa bat, bai: erruaren erabilera desaktibatzaile bat egiten da gaur egun. Zuk bidaiatzen baduzu, badirudi ez duzula eskubiderik zure herrian turistifikazioaren kontra borrokatzeko. Badirudi ez duzula zilegitasunik. Bidaiatu baduzu, ezin duzu zure herrian turismoaren inongo mugarik defendatu. Hori turismo industriaren mesedetan asmatutako tranpa bat da bete-betean. Erabilera demagogiko bat, kutsu etikokoa, guztiz salagarria gainera. Desazkunde turistikoaren norabidea hartzea erronka kolektiboa da. Ez da inondik inora pertsona batek egin beharrekoa. Zero pausoa "turismoa beti ona da" dioen dogma apurtzea eta gai honen inguruan eztabaida sortzea da. Eta, modu horretara, gizartean eztabaidatzea zenbateraino onartu dezakegun turismoa, noraino, zer kalte sortzen dituen eta zein muga jarri behar zaizkion hausnartzea.

Desaktibaziorako beste bide bat al da «kosmetikoak» diren neurriak hartzea?
Eztabaida zabaltzea, turismoak kalteak sortzen dituela azaleratzea eta herritarren zati handi bat horrekin ados agertzea lortu dugunean, zenbait politikarik arduratsu planak egiteko beharra ikusi dute. Nahiz eta, ostera, turismo industriaren mesedetan lanean jarraitu. Orduan etorri dira "neurri kosmetikoak" deiturikoak. Adibidez, Donostiako Parte Zaharrean turista-taldeen tamaina mugatzea edo pisu turistikoetan mugak jarriz, zaborraren kudeaketaren inguruko neurriak edo zaborrontziak jartzea bezalako gauzatxoak. Guk dioguna da turismoaren jardueraren bolumena murrizten ez den bitartean, ez dela konponbiderik egongo. Horrelako neurriek ez dute balio turismoak etxebizitza merkatuan duen eraginari aurre egiteko, herritarren kanporatzeari aurre egiteko edo bestelako ondorio askoz estruktural eta larriagoei erantzuteko.

Ez gabiltza, beraz, turismoa desagerrarazteaz hitz egiten. Intentsitatea txikitzeaz ari gara. Baina nola egin daiteke hori?

Desazkunderantz bidean neurrietako bat mugak jartzea da. Eta mugak legeen bidez eta politika konkretuen bidez jartzen dira. Muga jarri behar zaie eskaintzen diren ostatu plaza kopuruari, etor daitekeen pertsona kopuruari, garraiobideei, hegaldiei... Eta horretarako ezin da merkatuaren esku ikusezinean sinistu, Estatuak parte hartu behar du. Herritarrek erakunde publiko batzuk ditugu eta horiek herritarren interesak defenditu behar dituzte, ez aberasten ari direnen interesak. Beraz, lehen urratsa da neurri estrukturalak hartzea. Baina intentsitatean eragiteko baino, turismoak beste alor guztietan sortzen duen baldintzapena gutxitzeko helburuarekin hartzea. Herritar arrunt bat izanik, gure bizitzetan, niri bizimoduan eta nire bizi baldintzetan eragin negatiboa txikiagoa izatea da helburua.

Estrategietako bat lurralde marka bat sortzea da. Turismoa apalduz gero hiriaren debaluazio bat egongo den beldurra sortzea herritarrengan al da turismo industriaren beste taktiketako bat?

Herritarren eta herrien autoestimuarekin eta autopertzepzioarekin jolasten dute. Hiri markak eta lurralde markak sortzean kanpora begira sortzen dira, baina barrura begirako markak ere izaten bukatzen dute. Gu geu jartzen gara saltzaileek sortu duten produktuaren ispiluaren aurrean. Eta badago jende bat entzuten duenean Arabar Errioxako bodega bat munduko bigarren onena izendatu duela ez dakit zein aldizkarik edo ez dakit zein hondartza Estatuko ederrena dela, berri pozgarria egiten zaiona eta ez duena kontuan hartzen horrek zer ekarriko duen. Ez dut uste modu arrazionalean gertatzen denik; are, modu emozionalean gertatzen dela esango nuke. Baina begira zer gertatu den "Tronuen Jokoa" telesailaren filmaketen kontura. Begira lehenengo egunean zer poza sortu zuen eta hortik aurrera zer-nolako negarrak etorri diren.

Joko horretan, nik uste pixka bat hotzak eta arrazionalak ere izan behar dugula eta gure autoestimua guk geuk zaindu. Gaur egun turismoaren ondorioekin ditugun arazoak ikusita, turismoa hoberen kudeatzen duen herrialdea izategatik sentitu beharko ginateke pozik eta harro. Askotan ereduengatik galdetzen didate, eta nik uste gu izan beharko ginatekeela turismo gobernatzen eredu. Hori litzateke lorpenik handiena. Ez turista gehiago etortzea, baizik eta, hoberen kudeatzen duen herrialdea izatea. Hori litzateke niretzat harro sentitzeko modukoa.

«Herritarren eta herrien autoestimu eta autopertzepzioarekin jolasten dute. Hiri eta lurralde markekin gu geu jartzen gara saltzaileek sortu duten produktuaren ispiluaren aurrean»

Donostiako alkateak udaran jarri nahi du martxan zerga turistikoa. Neurri eraginkorra da?

Neurri hau jada turismoa jasotzen duten pilo bat lurraldetan aplikatzen da, kasu batzuetan aspalditik gainera. Turismotik diru sarrera publiko bat gehitzen du, alde horretatik ez dago gaizki, baina inondik inora ezin da aurkeztu turistifikazioari aterabide bezala. Bere horretan ez du ezer konpontzen. Gainera, kasu askotan diru sarrera horren erabilera ez zaio helburu zehatz bati lotzen, eta, beraz, ez dago ziurtatua turismo zergatik jasotzen den diru hori turistifikazioaren kontra egiteko erabiliko denik. Are gehiago, kasu asko dira munduan biltzen den dirua promozio turistikoa indartzeko erabiltzen dena. Orduan, ondo dago zerga turistikoa? Bai, ondo dago aurrekontu publikoa handitzea turismotik jasotako dirutik. Konpontzen al du horrek turistifikazioaren arazoa? Inondik inora. Ez asko eta ez gutxi, ezer ez. Neurria ez dago horretara zuzenduta.

EAEn 2027ko urtarrilean aplikatuko da. Zergatik hainbesteko presa Donostian?

Egia da polemika bat dagoela mahaigainean. Eta esan genezake politikakeriaren adibide txarrenetako bat dela. Gobernu bazkideen, EAJren eta PSEren, arteko eztabaida bat da, baina publikoki ematen dena. Hala ere, zerikusi handiagoa du bakoitzak eman nahi duen irudiarekin benetako neurri publikoekin baino. Datu objektiboak dira, alde batetik, Donostiako udalbatzak 2017an onartu zuela lehenengo aldiz zerga turistikoa ezarri behar zela, aho batez gainera, eta azkenean hamar urte beranduago ezarriko dela, 2027an. Bigarren egitatea da hamar urte hauetan alderdi koalizio berbera egon dela Donostiako Udalean, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Eusko Jaurlari-

«Ondo dago zerga turistikoa? Bai, ondo dago aurrekontu publikoa handitzea turismotik jasotako dirutik. Konpontzen du turistifikazioaren arazoa? Inondik inora. Neurria ez dago horretara zuzenduta»

tzan agintzen. Eta hamar urteotan ez dira gai izan hori adosteko. Orain, batek presaren antzerkia egin nahi du; besteak, sektorea zaindu beharrarena; eta hirugarrenak, legea zorrotz bete beharrarena. Baina hemen kontua zein da? Azken hamar urteotan industria turistikoak neurriaren aplikazioa atzeratzea lortu duela, eta, beraz, erakunde publikoek hamar urtez diru sarrera hori jasotzeko aukera galdu dutela.

Zure lan eremua soziolinguistikarena da. Turismoaren eragina hizkuntza gutxituetan agerikoa da. Zergatik ez da erabiltzen bereizgarri bezala eta exotizatu, adibidez?

Erabiltzen da, baina kontua da erabilera horrek ez diola inongo hobekuntzarik edo onurarik ekartzen hizkuntzaren egoera soziolinguistikoari. Erabiltzen da apaingarri estetiko bezala eta nolabaiteko balio fetitxe bat emateko. Liburuan horren adibide gisa lantzen dut batez ere Lapurdiko kostako herri turistikoenetan, Donibane Lohi zunen esaterako, ikusten duguna. Bertan oso zaila da euskara entzutea kaletik, baina, aldi berean, dena txuri, gorri eta berdez pintatuta dago, denak du lauburu bat apaingarri moduan jarrita, denak du euskarazko izena. Orduan, turista frantsesak edo espainolak badaki Euskal Herrian dagoela. Baina euskara ez dago hor. Ez du entzuten. Bereizgarri moduan jarri izanak ez du bertako komunitatea euskaraz garatzen lagundu. Hortaz, batzuetan nahastu egiten da zein onura ekar diezaiokeen euskarak turismoari eta zein onura turismoak euskarari. Eta bigarren horretan, kalteak handiagoak dira onurak baino. Eta kalte handiena batez ere ez da maila sinbolikoan ematen dena, kalterik handiena harreman sareak deseginez sortzen duena da. Azkenean, euskararen erabilera gehien hazten da hiztunek elkar ezagutzen dugunean eta kohesio eta trinkotasun bat dagoenean hiztun euskaldunen artean. Badakizunean zein dendara joan euskaraz arreta emango dizutelako, badakizunean zein plazatan biltzen diren euskaldunak... Kasu horietan esponentziala da euskararen erabileraren igoera. Kontrara, gizarte lotura disolbatzen direnean eta jendea bere bizilekutik kanporatua denean, argi dago euskaldunak galtzen ateratzen garela.

Nola eta nora bidaiatu da gure buruari egin beharreko galdera nagusia?

Hemen auzi zentrala da gure hiri eredua, gure lurralde eredua eta gure gizarte eredua. Norberaren zilborrera gehiegi begiratzea da pentsatzea auzia bere oporretan jokatzen dela. Askoz gauza handiagoaz ari gara. Kontsumitzaile bezala pentsatzeari utzi eta herritar bezala pentsatu beharko genuke. Merkatu global honetako aktore boteretsuen aurrean, erresistentzia bakarra antolakuntza kolektiboa da. Gurea bezalako plataformetan, zure auzoko kultura elkartean, kirol elkartean edota gastronomia elkartean. Baina edozein kolektibo, etekin ekonomikoa bilatzen ez duen kausa batengatik antolatzen denean, zaila egiten zaie boteretsu global hauei marea hori geldiaraztea. Egoera honi muga jartzeko lehenengo neurria ere hori da: antolakuntza herritarra eta denon artean denon interesak defendatzea.

Entzun elkarrizketa osorik NAIZen

naiz:

Maite ORONOZ
Donostiako EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Osasunaren determinatzaile sozialek gure osasuna baldintzatzen dute

Osasunaren determinatzaile sozialak (ODS) dira, besteak beste, pertsonak nola hazi, hezi edo bizi garen deskribatzen duten horiek. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, determinatzaile horiek osasun ekitatearekin lotura zuzena dute eta eragin handia izan dezakete pertsonen osasunean eta gaixotasunen garapenean.

ODSn garrantzia dela-eta, horiek isla izaten dute pazienteen osasun txostenetan. Hizkuntza teknologiei esker, osasun determinatzaile horiei buruzko informazioa erauzi eta azter daiteke, eta, ondoren, pazientearen osasun fisikoarekin eta mentalarekin duten harremana ikertu.

MIMIC-SBDH da osasun txostenetan osasunaren determinatzaile sozialak etiketatuta dituen datu-bildumetako bat, eta, eskuragarri egonik, ikerkuntza-lanetan oso maiz erabiltzen da. Bilduma honetako osasun txostenetan, bi etiketa mota topa ditzakegu. Alde batetik, txosten bakoitza kategoria ezberdinetan sailkatzen da: pazientea gizartean ongi integratuta ote dagoen eta inguruan familiaren babesik ote duen (komunitatea du); bere ongizatean eragina izan dezakeen isolamendu egoerarik edo egoera pertsonal kaltegarririk (abusurik, ingurukoen heriotzarik edo traumarik) jasan ote duen (komunitatea faltan); eskolara joan ote den edo ez (hezkuntza); une horretan lanean ari ote den edo langabezian dagoen (lan egoera); bizitoki egonkorrik ote duen edo etxegabea ote den (etxebizitza); eta alkoholik, tabakorik eta drogarik hartu izan duen, unean hartzen duen edo ez duen hartzen (tabakoa, alkohola eta droga erabilera). Osasun txosten osoa, eta beraz, pazientearen egoera, sailkatzeaz gain, adierazten da testuko zein hitzek ematen duten aditzera egoeretako bakoitza. «Ez du inoiz drogarik hartu eta familiarekin bizi da» edo «langabea, kalean bizi da eta azken urtean egunero heroina hartzen du» moduko egoerek arras eragin ezberdina dute osasunean.

ODSak eskuz idatzitako erregelak baliatuz edo ikasketa gainbegiratua erabiliz -hau da, dagoeneko etiketatutako testuetatik- ikas daitezke (adibidez MIMIC-SBDHtik). Hori bai, testu horiek etiketatzea lan neketsua eta garestia da. Gaur egun testu etiketatuak automatikoki sortzeko gai dira hizkuntza-eredu handiak. Adibidez, GPT moduko eredu sortzaileei aginduak eman ahal zaizkie, txostenean ODS horiek agertzen ote diren eta zeintzuk diren identifika dezaten. Emaitza onak ematen dituzte, baina, noski, hizkuntzaren anbiguotasuna dela-eta, ez gizakiak ez sistema adimendunak ez gara gai egoera batzuk bereizteko. «Dibortziatua, herri txiki batean bizi da» kasuan, pazientearentzako komunitatea presente al dago? «30 urteko erretze historia, alkoholik ez/drogarik ez» esaldian, erretzen jarraitzen al du pazienteak? Osasunaren determinatzaile sozialei buruzko informazioa txosten medikoetan labur agertu ohi da, eta maiz testuinguru zehatzik gabe, beraz, batzuetan, modu anbiguoan.

Edozein kasutan, ODSak automatikoki ongi identifikatzea ezinbestekoa da pazientearen tratamenduan eta diagnosian, batez ere pertsonen ongizate emozionalean eta psikologikoan eragiten baitute, eta, beraz, osasunean, mentalean bereziki. Zain dezagun gizartea, lan eta etxebizitza duinak eskura ipini, sor dezagun komunitatea eta indartu dezagun hezkuntzarako eskuragarritasuna, horren ondorioz, gure osasuna hobetuko da-eta. •

Osasunaren determinatzaile sozialek pertsonak nola hazi, hezi eta bizi garen deskribatzen dute. GETTY IMAGES

BEHATXUL TIK

Juantxo EGAÑA

ROLDAN ARGAZKI ESTUDIOA. NAFARROAKO ERREGE ARTXIBO NAGUSIA.

LAIARIAK URDIAINEN, 1924AN

Laiak oso tresna garrantzitsuak izan ziren Euskal Herriko nekazaritza tradizionalean. Etnologoek egindako hainbat azterlanen arabera, goldea baino lehenagokoa dela uste da. Herri askotan mendeetan zehar lurra eskuz lantzeko erabili ziren. Urdiainen (Nafarroa) batez ere emakumeek egiten zuten lan hori. Laiariek bi laia erabiltzen zituzten aldi berean lurra mugitu eta iraultzeko, hazia erein aurretik. Lan gogorra zen, indarra, koordinazioa eta esperientzia eskatzen zituena. Laia bakoitza metalezko estruktura batez osatuta zegoen, burdinazko bi punta eta egurrezko helduleku luze bat zituena. Mota desberdinak zeuden lekuaren arabera. Artikulu hau ilustratzen duten argazkiak Urdiainen egin ziren 1924an, eta Roldan de Iruña argazki-estudioak Nafarroako Eskualdeko Jantzien Batzordearen enkarguz egindako erreportajearen parte dira, 1925ean Madrilen egindako Eskualdeko Jantzien Erakusketan argitaratzeko.

bidaiari 054

naiz:-en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde berrietara goaz

SNÆFELLSNES PENINTSULA

Lurraren erdigunerako atea

hurrengo ostiralean zure kioskoan GARArekin doan

eta gainera...

KRETA
MINOTAUROAREN UHARTEA

EDMONTON
KANADA IPARREKO UDAZ GOZATZEN

NEDERLANDS FOTOMUSEUM
GARDENTASUNA ETA ABANGOARDIA

TARN ETA URDAIBAI
UR KORRONTEEK BULTZATUTA

GALLERY BY THE LAKES
ESKULTURA ETA PASAIA

Elkarrizketa Eneko Azkue **Egin planak** Getxophoto; Haizetara; KaldeArte... **Munduan pasieran** Graçako funikularra, berriz martxan; Skeltongo gazteluaren kokapen zehatza; Deabru putzegilea, gogoan; Scarborougheko Scooter Rallya; 'David'-en erreplikarik zehatzena; Richmond Park-eko azaleen loraldia; Enodoc, John Betjeman poetaren atsedenlekua...

60530
9 771887 675001